



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2017KO MARTXOAREN 30EAN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Jon Mikel Iglesias Otegui
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Victoria Rodriguez Feloaga
Maria Cristina Goya Amiama
Eleuterio Sanchez Garcia

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hamazazpiko martxoaren hogeita hamarrean** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza hasi aurretik, eguneko gai-zerrendan aurrakusten ez diren gai hauek sartzea proposatzen du. Honako gai hauek proposatzen ditu:

- 2017ko martxoaren 2ko ezohiko osoko bilkuraren aktaren onarpena
- 2017ko martxoaren 13ko ezohiko osoko bilkuraren aktaren onarpena
- Ibarran etxeko eta merkataritzako hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautuko duen Udal Ordenantzaren onarpena

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: 2017ko martxoaren 30eko Udalbatzaren eguneko gai zerrendan sartzea honako gai hauen azterketa

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- 2017ko martxoaren 2ko ezohiko osoko bilkuraren aktaren onarpena
- 2017ko martxoaren 13ko ezohiko osoko bilkuraren aktaren onarpena
- Ibarra etxeko eta merkataritzako hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautuko duen Udal Ordenantzaren onarpena

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2017ko urtarrilaren 12an egindako ohiko osoko bilkuraren aktaren onarpena
- 2.- 2017ko martxoaren 2ko ezohiko osoko bilkuraren aktaren onarpena
- 3.- 2017ko martxoaren 13ko ezohiko osoko bilkuraren aktaren onarpena
- 4.- 1/2017tik 100/2017ra Alkate Dekretuak jakinaraztea
- 5.- Ibarra Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jendaurrean edukitzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzuna
- 6.- Beste Administrazio batzuek Ibarra Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko prozesuan egindako txostenen balorazioak eta ondorioak onartzea eta jasotzea
- 7.- Hasierako onespeneko baldintzak, Hirigintza Arau Orokorraren errebisioa II. Liburuaren onarpena
- 8.- Euskararen erabileraren normalizazioan izan dezakeen eraginaren ebaluazioaren onarpena.
- 9.- Ibarra Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean parte-hartze prozesuaren inguruko erabakiak
- 10.- Ibarra Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hasierako onarpena
- 11.- Ibarra etxeko eta merkataritzako hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautuko duen Udal Ordenantzaren onarpena
- 12.- Mozioa: Sare-k Ibarra Hiri Antolamenduko Udalbatzari aurkeztzen dion mozioa larriki gaixorik dauden presoak askatu! Manu Etxera! Lemapean.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

13.- Mozioa: Zurrumurruen Aurkako Sareak Ibarra Udalbatzari aurkezten dion mozioa Martxoaren 21, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako nazioarteko eguna lemapean

14.- Adierazpen instituzionala: Euskal Fondoak Ibarra Udalbatzari aurkezten dion adierazpen instituzionala Europako Justizi Auzitegiak mendebaldeko Saharari buruz emandako epai betetzearen gainean

15.- Galde-eskaerak

LEHENA:

2017KO URTARRILAREN 12AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko urtarrilaren 12ko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko urtarrilaren 12ko ohiko bilkurako akta

BIGARRENA:

2017KO MARTXOAREN 2AN EGINDAKO EZ- OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko martxoaren 2ko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko martxoaren 2ko ez-ohiko bilkurako akta

HIRUGARRENA:

2017KO MARTXOAREN 13AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2017ko martxoaren 13ko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2017ko martxoaren 13ko ezohiko bilkurako akta

LAUGARRENA:

1/2017TIK 100/2017RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2017ko urtarrilaren 12tik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 1/2017tik 100/2017ra.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

BOSGARRENA:

IBARRAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN JENDAURREAN EDUKITZEKO IZAPIDEAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUNA.

2017/03/30

4



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016ko maiatzaren 26an Ibarra Udaletxean egindako osoko bilkuran hasierako onespina aho batez jaso zuten, baldintza batzuk gehituta, "Ibarra Hiri Antolamenduko Plan Orokorra" eta bere ingurumen-jasangarritasuneko txostena". Biak 2016ko otsailekoak.

Aipaturiko onspena eta dokumentua 45 eguneko epean jendaurrean edukitzeko erabakia prentsan eta 2016ko ekainaren 15eko 113 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

2016ko abuztuaren 9an jendaurrean edukitzeko epea amaitu zen eta hamalau (14) alegazio-idazki aurkeztu ziren.

Aurkezturiko alegazioen balorazioa egiterakoan kontuan hartu dira ere, dagozkien eskumenei erreparatuta, jasotako beste Administrazio batzuen txostenen balorazioak.

Banan bana erredaktore taldeak, udalaren irizpideak aintzat hartuta, aurkezturiko alegazioen idazkiaren edukia aurkezten da eta hirigintza batzordearen irizpen proposamena.

LEHEN ALEGAZIOA

Basilía Dorrnsoro andreak eta beste batzuek aurkeztutako idazkia. (1.407 erregistro-zk - 16/07/26)

IDAZKIAREN EDUKIA

Basilía Dorrnsoro andreak, Victor Illumbe jaunak eta Pedro María Illumbe jaunak eskatzen dute bizitegi-kalifikaziodun lurzoru hiritar gisa sailkatzeko beraien jabetzakoak diren eta Euskal Herria kale ertzean (67 zk.) kokatuta dauden lursailak, ekonomia-eta ingurumen-jasangarritasunaren ikuspegitik proposamena bideragarri egingo duen hirigintza-eraikigarritasuna ezarriz.

Horretarako argudiatzen dute Plan Orokorrean aurreikusitako okupazio-ereduei erantzuten dien lurzoru dela, Euskal Herria kalearen jarraitutasunean hutsunea eragiten duela eta lehentasunez garatu beharko litzatekeen lekua dela, gaur egun baratze gisa erabiltzen diren eta balio estrategiko handiko kategoriazioa dutenen aurrean. Testuinguru horretan, bestalde, zalantzan jartzen dira Arane eta Montes baserrietako baratzeetako lurzoruak aipatzen dituen zatian Plan Orokorrearen hasierako onspenean jasotako baldintzak.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Idazkia aztertu eta bertan proposatutako guztia kontuan hartuta, aurrekariak aztertu dira. Hala, lehenik eta behin kontuan izan behar da idazkiak aipatzen dituen eta Euskal Herria kale ertzean kokatuta dauden lursailak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta daudela indarreko Arau Subsidiarioetan. Bestalde gaineratu behar da 2004an hasitako berrikuspen-prozesuaren

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

testuinguruan Udalak lursail horiek hiri-garapenean txertatzea aztertu duela, ekimen horiek oraindik behin betiko onespenera jaso ez duten arren.

Aurrekari horiek kontuan hartuta, Udalak jarraipena eman dio bere plangintza orokorraren berrikuspen-prozesuari, beste batzuen artean, garapen berriak mugatzeko, bere barruan esku hartuta hirigunea indartzea eta jarraipena ematea ahalbidetzeko eta garapen jasagarria bideratzeko helburuak ezarriz.

Ildo berean, Planak Euskal Herriko LAAen aldaketa onartu berriari xedatutakora egokitu behar du, Plan Orokorretan etxebizitza-garapen berrien kuantifikazioari dagokionez.

Hala, hasierako onspena jaso duen Plan Orokorreko proposamenak ez du hiritar-izaerako garapenik aurreikusi idazkiak aipatzen dituen Euskal Herria kale ertzean kokatutako lurretan.

Testuinguru horretan, alegazio-jartzaileek eskatzen dute beraien jabetzako lurak bizitegi-kalifikazioko lurzoru hiritar gisa sailkatzeko.

Eskabidea aztertuta, lehenik eta behin ikusten da aipaturiko lurak hirigunearen ipar-ekialdean daudela, hirigunearen alboan, baina udal-proiektuan hirigunean txertatutako beste lurzoru batzuk baino kokapen periferikoagoan.

Bestalde, ezaugarri topografikoei eta irisgarritasunekoei eta dituen zuzkiduren ezaugarriei erreparatuta, ikusten da lur horiek ez dituztela betetzen lurzoru hiritar gisa sailkatzeko lege eskatzen diren baldintzak. Kontu horri dagokionez gaineratu behar da Udalak leku horretan garapen berri bat antolatzeak aukera aintzat hartu zuenean lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzea aurreikusi zela, eta ez lurzoru hiritar gisa.

Are gehiago, adierazitako baldintza orografikoei etengabe aipatzen diren lurretan garapen berri bat aurreikusteko aukera zalantzan jartzen duen beste alderdi bat gehitzen zaie. Hala, Udalak Uzturreren hegoaldeko mendi-hegalean, hau da, malda handiko lekuan kokatutako lursail hori ezagutzeak udal-proiektuan leku horretan esku hartzearen ondoriozko balizko arriskuak saihestea eragiten du, haren ezaugarri geologiko eta hidrologikoei erreparatuta.

Bestalde, idazkian planteatutako argudioei dagokienez, aipatutako eremuaren izaera periferikoak idazkian alderatzen den beste kokapen batzuetatik bereizten duela adierazten da, eta ez dela hirihutsune bat; lehen adierazitako arrazoiak medio, ez dela jotzen lehentasunez garatu beharreko lekutzat; eta Plan Orokorrek baloratu duela hirigunean txertatutako nekazaritza-balio estrategiko handiko lurzoru mugatu haien inpaktua, dagozkien lehentasunak ezarriz.

Horregatik guztiagatik, Udalak berretsi egiten du idazkiak aipatzen dituen Euskal Herria kale ertzean kokatutako lurak Plan Orokorrean proposatutako hiri-eremuan ez txertatzeko proposamena. Eta hori horrela planteatzen da garapen berriak mugatzeko, bere barruan esku hartuta hirigunea indartzea eta jarraipena ematea ahalbidetzeko eta garapen jasagarria

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

bideratzeko helburuei erreparatuta, Plan Orokorrak hartu behar dituen aldagaien multzoa kontuan hartuz eta dagozkion lehentasunak ezarriz.

Idazkiak, bestalde, zalantzan jartzen ditu Arane eta Montes baserrietako baratzeetako lurzoruak aipatzen dituen zatian Plan Orokorren hasierako onespenean jasotako baldintzak eta berriz aztertu ondoren hasierako onespenean jasotako baldintzak ezabatzeko proposamena ontzat eman da.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Ezestea, aurkezturiko balorazioaren arabera, lehenengo alegazio hau: eskatzen du hiri lur gisa sailkatzea, bizitoki kalifikazioarekin Euskal Herria (67 zk.) ertzeko bere lurak, bertan hirigintza eraikigarritasuna ezarriz.

BIGARRENA: Hiri antolamenduaren plan orokorraren II. liburuko "2. Hirigintza-arauak" jasotzen duen 6.1 C artikulua mantentzea eta ez aldatzea, hasierako onarpenaren eranskinaren lehen puntuko baldintzetan jasotzen zena aldatuz. 6. artikulua.- Plan Orokorra berraztertzeke baldintzak.

BIGARREN ALEGAZIOA

Javier Telleria Elorz jaunak aurkeztutako idazkia Kai Belate, S.L. ren izenean.

(1.422 erregistro-zk. - 16/07/27)

IDAZKIAREN EDUKIA

Javier Tellería Elorz arkitektoak Argindegi kaleko 2 zenbakiari dagokion lursailaren jabetzaren izenean formulatu du alegazioa, hau da, Kai Belate, S.L.-ren izenean.

Lursail horretako jarduketa-proposamenei buruzko aurrekariak gogoratu ondoren, Plan Orokorrean jasotako proposamena bideragarria ez dela planteatzen du.

Hala, Plan Orokorrak behar den zortasunaren aurreikuspena aintzat hartzea planteatzen du, ahal izanez gero, aldameneko eraikinetik garajeko sotoetarako sarbidea ahalbidetzeko, eraikinaren garaiera bi solairutan handitzeko eta aldameneko eraikin horren zerbitzura dagoen igogailu publikoa erabiltzeko. Bestalde, finkako aprobetxamenduak beste eremu batera lekualdatzea planteatzen du.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hori dela eta, adierazitako ildoan proposatutako antolamendua berriz aztertzea eskatzen du, eta irtenbide egokia zehazteko Udalarekin lankidetzan aritzeko prest ageri da.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Idazkiak aipatzen dituen aurrekarietan adierazten den bezala, Plan Orokorra idazteko prozesuan harremanetan egon dira finkaren jabetzaren eta Udalaren artean eta, hark, Udalak bere gain hartu eta Plan Orokorrean jasota geratu den proposamena planteatu du.

Aurkeztutako idazkian ere jasota dagoen bezala, lursailaren tamaina kontuan hartuta, onartzen da bertan proposatutako esku-hartzearen konplexutasuna, bideragarritzat jotzen bada ere.

Proposatutako aukerak aztertu ondoren, eraikinaren garaiera handitzeak lursailaren neurrien ondoriozko aipaturiko zailtasun teknikoetarako inolako hobekuntzarik ez duela eragiten adierazten da. Halaber, ildo horretan erabaki bat hartzeak eraikin berriak inguruko eraikinek baino askoz garaiera handiagoa izatea eragingo luke. Gainera, eraikin berrira iristeko lehendik dagoen igogailu publikoa erabiltzeko planteatzen den balizko aukera ere zaildu egingo luke. Aukera hori ez da bideragarritzat jotzen inola ere, eta ez zaio jakineko irtenbiderik eman.

Aldameneko eraikinetik eraikin berriko sotoko solairuetara sarbidea izateko irtenbiderik ere ez da eman. Aukera horren bideragarritasuna zalantzan jartzen da idazkian bertan ere eta ez da bideragarritzat jo lehen hurbilketan.

Hala, adierazitako aukerek ez diete erantzuten azaldutako zailtasunei, eraikigarritasun handiagoa baino ez diete ematen.

Idazkiak, bestalde, egoera horretaz ohartuta, finkako aprobetxamenduak beste eremu batera lekualdatzea proposatzen du.

Proposamen horren aurrean esan beharra dago ez dela ikusten lehendik dagoen bizitegi-lursaila zuzkidura-erabilerako lursail bihurtzeko premiarik eta, hori dela eta, irtenbide egokiena lehendik dagoen eraikina finkatzea izango litzatekeela, hura birgaitzeko aukera soilik kontuan hartuz.

Aukera horren aurrean, Plan Orokorrak proposatutako irtenbidearekin jarraitzea planteatzen du Udalak, partzelaren mugapena eta haren okupazio-baldintzak birdoituz eta atikoan solairu atzeraeman gehigarri bakarra egikaritzea baimenduz, bideragarria delakoan eta, ondorioztatzen diren bideragarritasun-baldintzak birgaitzeko esku hartzea aukeratuz gero izango liratekeenak baino hobeak izango liratekeelakoan.

Beraz, aurkeztutako alegazioa atzera botatzea baina zati bat onartzea proposatzen da.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Halaber, prozesutik ondorioztatzen diren proposamen guztiak kontuan hartuta, Planean, oro har, etxebizitzaren batez besteko tamaina 85 m2(t)-tan finkatzen bada ere, esku artean dugun kasuan, bere ezaugarri bereziei erreparatuz eta horretarako arrazoiak daudela ulertuz, Argindegiko azpierzemuko gutxieneko batez besteko tamaina 70 m2(t)-koa izatea proposatzen da.. Hori lagungarria da jarduketaren bideragarritasun-baldintza tekniko eta ekonomikoetarako. Halaber, proposatutako eraikuntza-baldintzak behar dira.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzat, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: EZESTEA alegazioa, jasotako arrazoietan oinarrituta.

BIGARRENA: Lursailaren mugaketa eta okupazio baldintzak doitzea. Baimentzea atiko atzeramanguneko oin bakar gehigarria exekututzea, bideragarritasun baldintzak hobetuz.

HIRUGARRENA: Argindegiko azpierzemuko batez besteko gutxieneko tamaina zehaztea 70 m2(t), dituen neurri-ezaugarri bereziak kontuan izanda.

HIRUGARREN ALEGAZIOA

Nekane Lazkano andreak eta Aitor Otaegi jaunak aurkeztutako idazkia.

(1.433 erregistro-zk - 16/07/28) (Euskaraz bakarrik jakinaraziko zaie helegitearen erantzuna)

IDAZKIAREN EDUKIA

Lurzoru urbanizaezinerako onartutako 135 m2-ko etxebizitzaren gutxieneko tamaina lurzoru hiritarrerako onartutako 85 m2-ko tamainara murriztea eskatzen dute.

Hainbat argudio aurkeztu dituzte horretarako. Etxebizitza-tamainaren premiak murrizteari buruzkoak eta baserri bakoitzean etxebizitza gehiago egotea ahalbidetuz eraikinak mantentzeko erraztasun handiagoari buruzkoak jaso dira hemen... Halaber, Orendainen gauzatutako kasu bati buruzko aipamena ere egiten da.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Lehenik eta behin adierazten da Ibarra Plan Orokorrak, idazkian aipatzen duen Orendainekoak bezala, lurzoru hiritarrean kokatutako baserrietan etxebizitzaren gutxieneko batez besteko tamaina 85 m2(t)-koa izatea ahalbidetzen du, lurzoru hiritarraren izaera horri erreparatuz. Lurzoru

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

urbanizazinean, bestalde, erregulazio desberdina ezarri da, Udalak Planaren hasierako onespenerekin batera sartutakoarekin bat datorrena, eta gutxieneko batez besteko tamaina 135 m²(t)-tan finkatzen duena.

Azken erabaki horrek, oro har, hasiera batean proposatutako erregulaziotik ondoriozta zitekeena baino etxebizitza-kopuru handiagoa baimentzeko aukera ematen duela ulertuta, eta hasierako erregulazio horri eusten zioten argudio beraietan oinarrituta, aurkeztutako alegazioa atzera botatzea proposatzen da lurzoru urbanizagarrian etxebizitza-kopuruaren handitze garrantzitsua saiheste aldera, Plan Orokorrak oinarritzat dituen jasangarritasun-printzipioekin kontrajarrita egon daitekeena, landa-errepideen eta landa-ingurune azpiegituren eskaera berriak sortuz.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzarak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: EZESTEA alegazioa, txostenean jasotako arrazoietan oinarrituta.

LAUGARREN ALEGAZIOA:

Francisca Zalacain andreak eta Felix Perurena jaunak aurkeztutako idazkia.

(1.439 erregistro-zk - 16/07/29)

IDAZKIAREN EDUKIA

Alegazio-aurkezleek Eskuzarre eta Malkorrene baserrietan dute bizilekua hurrenez hurren, eta 4.1 Malkorrenea-Eskuzarre azpieroemaren antolamendua aldatzea eskatzen dute, esku-hartzea bideragarri egiteko xedez. Horretarako, azpieroemuko bizitegi-eraikigarritasuna 3.800 m²(t)-tik 5.200 m²(t)-ra handitzea eskatzen dute, eraikuntza-profila solairu bat igoz eta sakonera eraikigarria handituz.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Egindako eskaerak ez du aurkeztu ez antolamendu-proposamen alternatiborik eta ez azterketa ekonomikorik eta eskaera hori aztertu ondoren adierazten da Plan Orokorren dokumentuak jasotzen duela egindako proposamenaren bideragarritasunaren justifikazioa.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Dena den, proposatutako jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa bideratze aldera, Udalak berriro aztertu eta pentsatu du eraikinaren garaiera modu homogeenan handitzea egokia ez dirudien arren, antolamendu alternatibo bat egin daitekeela, idatzian proposatutako ildotik eremuan eraikigarritasuna handitzea ahalbidetuko lukeena.

Horretarako, eremuaren okupazio-baldintzak aztertu dira eta horiek aldatzea egokia ez dela pentsatu da eta eraikuntzarako aurreikusitako sakonera eraikigarria lehen bezala uztea ere proposatu da, bai sestra azpian eta bai sestra gainean.

Hala ere, Udalak ontzat eman du profil desberdineko bi bloke antolatzeo aukera alternatiboa, sestra baxuenean eta mendebaldekoenean, hiri-bilbean erdirago dagoenean, ekialdean eta sestra pixka bat altuagoan kokatutako blokean baino solairu bat gehiagoko bloke bat antolatuz. Hala, hauxe antolatzea proposatzen da: lehen bloke bat beheko solairuarekin, goiko bost solairurekin eta atiko gisa eratutako atzeraemangunedun beste bi solairurekin, eta bigarren bloke bat beheko solairuarekin, goiko bost solairurekin eta atzeraemangunedun atiko batekin. Bigarren bloke horren profila lbategin proiektatutako garapen berrirako aurreikusitakoarekin bat etorritz antolatu da.

Hortik sestra gaineko eraikigarritasun berri hau atera da: 1.100 m²(t) beheko solairuko lokal eta ezkaratzetarako eta 5.100 m²(t) goiko solairuetako etxebizitzetarako, eskatutakoari erantzunez. Hasieran proposatutako bizitegi-eskaintza handitzea esan nahi du horrek, aurrerago adieraziko den bezala, beste kokapen batzuetan aurreikusitako etxebizitza-kopurua murriztuz konpentsatuko dena.

Bestalde, eremuan lehendik dauden etxebizitza gehienen batez besteko tamainari eta proposatutako jarduketaren norainokoari erreparatuta, azpierzemuko gutxieneko batez besteko tamaina 70 m²(t)-koa izatea proposatzen da, Planean oro har finkatuta dagoen etxebizitzaren gutxieneko batez besteko tamaina 85 m²(t)-koa izan arren.

Azpierzemuko aplikazio-estandarrak betetzeko xedez, azpierzemuan ateratzen den bizitegi-eraikigarritasunak espazio libretarako 571 m²-ko azalera eta zuzkidura lokaletarako 1.020 m²-ko azalera eskatzen dituela adierazten da. Eskaera horiek bete egiten dira azpierzemuan, espazio libretarako 725 m² eta zuzkidura publikotarako 1.529 m² dituelako.

Deskribatutako proposamen alternatiboa 2. Eranskinean zehazten da eta txosten honi 3. Eranskinean erantsitako grafiko arauemailetan irudikatzen da.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzarak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Partzialki onartzea aurkezturiko alegazioa txostenean jasotakoaren arabera.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Azpieroaren batez besteko gutxieneko tamaina zehaztea 70 m²(t), kontuan izanda eremu horretan dauden etxebizitza gehien batez besteko neurria eta proposaturiko jarduketaren irismena.

BOSGARREN ALEGAZIOA

Ramón Gabirondo Iturrioz jaunak aurkeztutako idazkia.(1.440 erregistro-zk. - 16/07/29)

IDAZKIAREN EDUKIA

Errekondone baserriaren jabe gisa desadostasuna adierazten du baserriari, bere etxeari eta bere baratzei eragiten dien proposamenarekin. Hura duela gutxi birmoldatu dela adierazten du eta bere ingurune hurbilenean esku hartzearen kalterik gabe hura dagoen bezala uztea eskatzen du.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Hasierako onespina jaso duen dokumentuan egindako proposamena interesekotzat jotzen den arren, Uraren Euskal Agentziak (URA) azaldutako irizpideen ondoriozkoak diren eta aurrerago azalduko diren inguruabarrei nahiz aurkeztutako alegazioaren edukiari erreparatuta, alegazioa aintzat hartzea planteatzen da, lehendik dauden eraikina eta eraikigarritasuna eta hari lotutako lursaila finkatuz, aurreikusitako lurzoruz hiribarraren sailkapenari eutsiz eta izaera orokorreko nahiz zehatuko lursaila bizitegiarako gisa kalifikatuz

Hasierako onespina jaso duen dokumentuan proposatutako "Ezeizaenea-Errekondone 2.1 azpieroaren" lursailatik ateratzea eta bizitegi-garapen berrien eskaintza murriztea dakar horrek, beste kokapen batzuetarako aurreikusitako etxebizitza-kopurua handituz konpentsatzen dena.

Hasiera batean aurreikusitako sistema orokor mailako espazio libretarako azalera ere murrizten du, aurrerago justifikatuko den bezala, behar bezala konpentsatuko dena behar den oreka lortuz.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzako, aho-batez, 11 aldeko botoekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea aurkezturiko alegazioa, txostenean jasotakoaren arabera, nagusiki URA Uraren Euskal Agentziak emandako irizpideetan oinarrituta.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

SEIGARREN ALEGAZIOA

Juan Bautista Otaegui jaunak eta Pilar Larrarte andreak aurkeztutako idazkia.

(1.447 erregistro-zk. - 16/07/29)

(Euskaraz bakarrik jakinaraziko zaie helegitearen erantzuna)

IDAZKIAREN EDUKIA

Idazkia izenpetzen dutenak Izaskun auzoko Harrigain etxeko biztanleak dira. Batetik, beraien etxea Izaskun eremuko lurzoru hiritarrean sartzeko eskatzen dute eta, bestetik, landa-inguruneko etxebizitzaren gutxienerako batez besteko tamaina murrizteko.

Bigarren gaiari dagokionez, hainbat argudio aurkeztu dituzte. Eraikinak mantentzeko erraztasun handiagoari buruzkoak jaso dira hemen, baserri bakoitzean etxebizitza gehiago egotea ahalbidetuko lukelako horrek... Halaber, Orendainen gauzatutako kasu bati buruzko aipamena ere egin dute.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Lehenik eta behin adierazten da Ibarra Plan Orokorra, idazkian aipatzen duen Orendainekoak bezala, lurzoru hiritarrean kokatutako baserrietan etxebizitzaren gutxienerako batez besteko tamaina txikiagoa izatea ahalbidetzen duela.

Dena den, planteamendu hori landa-lurreko baserri sakabanatuetara ezin dela lekualdatu ulertu da.

Horregatik, lurzoru urbanizazinean lurzoru hiritarrean aurreikusitakoaren erregulazio desberdina ezarri da, Udalak Planaren hasierako onespenerekin batera sartutakoarekin bat datorrena, eta gutxienerako batez besteko tamaina 135 m²(t)-tan finkatzen duena.

Azken erabaki horrek, oro har, hasierako onespenerako dokumentuan hasiera batean proposatutako erregulaziotik ondoriozta zitekeena baino etxebizitza-kopuru handiagoa baimentzeko aukera ematen duela ulertuta, eta hasierako erregulazio horri eusten zioten argudio beraietan oinarrituta, aurkeztutako alegazioa atzera botatzea proposatzen da lurzoru urbanizagarrian etxebizitza-kopuruaren handitze garrantzitsua saiheste aldera, Plan Orokorra oinarritzat dituen jasangarritasun-printzipioekin kontrajarrita egon daitekeena, landa-errepideen eta landa-inguruneko azpiegituren eskaera berriak sortuz.

Gainera, uste da aurkeztutako argudioek lurzoru urbanizazinean proposatzen dena bezalako bizitegi-dentsitatearik ezin dutela arrazoitu.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Idazkian egindako beste eskaerari dagokionez, esan, indarreko Arau Subsidiarioetan kontuan hartutako lurzoru hiritarraren mugapena, behar bezala doituta, jasotzera mugatu dela Plan Orokorra. Baina lurzoru hiritarraren aldamenean kokatutako lursaila dela eta sarbide zuzena eta behar diren zerbitzuak dituela eta bere neurriak eta finkatze-maila kontuan hartuta, egindako proposamena aintzat hartzeko modukoa dela uste da.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzarak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: EZESTEAN lehenengo alegazioa txostenean jasotakoaren arabera, lur ez hiritargarran etxebizitza kopurua ez handitzeko.

BIGARRENA: Onartzea lurzoru hiritarra handitzeko eskaera Izaskunen, Harrigain etxea izeneko lursaila txertatuz, berau bizitoki gisa sailkatuz eta lehendik dagoen eraikigarritasuna finkatuz.

ZAZPIGARREN ALEGAZIOA

Maria Jose Otamendi Zubelzu andreak aurkeztutako idazkia.

(1.454 erregistro-zk - 16/08/01)

IDAZKIAREN EDUKIA

Azkue baserriaren jabe gisa, lurzoru hiritarraren sailkapena zabaltzea eskatzen du, Azkue baserriaren aldameneko eranskinak sartuz, lehendik dagoen eraikina barne, eta lurzoru hori bizitegi-lurzoru gisa sailkatzea eta aipaturiko eraikina etxebizitzatarako finkatzea.

Lurzoru hiritar gisa sailkatzea proposatzen den lurraren perimetroaren % 70 lurzoru hiritarrez inguratuta dagoela eta urbanizazio-baldintza objektibo finkatuak, sarbide bermatua eta instalazio hiritarrak lursail oinean dituela eta, ondorioz, lurzoru hiritar izateko 2/2006 Legean aurreikusitako baldintzak betetzen dituela argudiatzen du. Iraganean lurzoru hiritar gisa sailkatuta egon zela ere gaineratzen du.

Aipaturiko lehendik dagoen eraikina "beheko solairu batez eta goiko solairu batez osatutako eraikin zahar erantsia" dela eta etxebizitza gisa birgaitu daitekeela azpimarratzen da.

Halaber, idazkian ulertzen da horretarako zuzkidura-jarduketa bat mugatzea beharrezkoa izan litekeela.

Proposamenaren plano informatzaileak eta irudidunak ere aurkeztu dira.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Egindako proposamena aztertu ondoren, aipaturiko lurzorua bere garaian urbanizagarri gisa, ez hiritar gisa, sailkatuta egon zela zehaztu behar bada ere, dagoen errealitateari eta idazkian argudiatzen denari erreparatuta, alegazioa aintzat hartzea proposatzen da. Baina bizitegi-erabilerarako birgaitzeko finkatzea proposatzen denaz gain aipaturiko finkan dauden gainerako eraikinak antolamenduz kanpo utzi behar direla zehazten da.

Hortik ateratzen den proposamenak ez ditu aldatzen lehendik dauden eraikigarritasun-baldintzak, antolamenduz kanpoko egoeran berariaz sailkatutako eraikinaren kalterik gabe, eta ingurumen-arloan ere ez dago gorabehera berezirik.

3. Eranskinean dago jasota proposamenaren norainokoa irudikatzen duen dokumentazio grafikoa.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea aurkezturiko alegazioa, eta adieraztea antolamendutik kanpo geratu beharko direla finkan dauden beste eraikinak, hain zuzen, horiek finkatzea proposatzen da bizitoki erabilerarako eraberritu ahal izateko.

ZORTZIGARREN ALEGAZIOA

Garazi, Olatz eta Haritz Izaguirrek aurkeztutako idazkia.(1.504 erregistro-zk. - 16/08/05)

IDAZKIAREN EDUKIA

Arane baserriko biztanle gisa, lehenik eta behin lurzoru hiritarraren muga doitzea eskatzen dute, etxearen lur erantsi urbanizatueta eta etxearen ipar-ekialdeko fatxadaren sekzio paraleloaren hamar metroko zerrendara zabalduz.

Halaber, lurzoru hiritarra gutxi gorabehera 1.595 m² hegoalderantz handitzea ere eskatzen dute, eremu erantsi horretan familia bakarreko bizitegitarako hiru lursail antolatzea ahalbidetuz, bizilekua Ibarra izaten jarraitzeko, beraien jaiotetxe ondoan baina independentzia pertsonalari eutsiz. Xede horretarako, familia bakarreko eraikin bakoitzaren 80 m²-ko gehieneko okupazioa proposatzen da; eraikuntza-profila: sotoa, beheko solairua eta lehen solairua eta teilatupeko solairua; 220 m²(t)-ko gehieneko eraikigarritasun fisikoa sestra ganean eta 80 m²(t)-koa sestra azpian hiru

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

etxebizitzetako bakoitzerako. Idazkiarekin batera, proposatutako guztiaren grafiko deskribatzaileak erantsi dira.

Gero, alegazio-jartzaile beraiek hasierako proposamenaren doikuntzaren bat planteatu dute. Testuinguru horretan, hiru etxebizitzetako bakoitzerako 90 m²-ko oinplano okupazioa eta sestra azpiko 270 m²(t)-ko eraikigarritasun totala aurreikusiz. Eraikinaren mugetara 3 metroko distantzia aurreikusi dute, eta 300 m²-ko gutxieneko lursaila ateratzen den lursail bakoitzerako.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Idazkiak bi proposamen ditu. Plan Orokorrak, hasiera batean, ez die erantzunik eman, Indarreko Arau Subsidiarioek Arane baserriaren ingurunean ezarritako lurzoru hiritarraren mugapenarekin jarraitzea aukeratu duelako.

Udalak sustatuta 2014ko irailean argitaratutako dokumentuan Arane baserriaren ingurunerako garapen integrala aurreikusten zuen antolamendua planteatu zen, baina prozesuaren jarraipenean baztertu egin zen alternatiba hori.

Prozesu horretan, Plan Orokorren epemugan Arane ibarra ez aldatzea eta bere luraren balio estrategiko handia babestea erabaki da.

Formulatutako eskaera bikoitzak, batetik, lurzoru hiritarraren sailkapena etxeko lurzoru erantsi urbanizatuera zabaltzea planteatzen du eta, bestetik, etxearen ipar-ekialdeko fatxadaren aldameneko lur-zerrenda batera. Proposamena zentzuzkotzat jo da eta ez die eragiten aurrez aipaturiko bi helburuei.

Bestalde, lurzoru hiritarraren handitze gehigarria eta familia bakarreko hiru etxebizitzetarako edukiera duen bizitegi-eraikigarritasun berria antolatzea planteatzen da.

Ekimen hori, norainokoari erreparatuta, aipaturiko bi helburuekin kontrajarrita dagoela ulertzen den arren, Udalari egoki iruditu zaio alegazioa aintzat hartzea txosten honetako 2. eta 3. Eranskinetako testuetan eta grafikoetan deskribatutako terminoetan.

Hala, lurzoru hiritarraren mugapena modu puntualean zabaltzea proposatzen da, Arane baserriaren ingurune hurbilenera mugatuta eta uholde-arriskua duen orbanetik kanpo. Honela identifikatuko litzateke: "1.3 Arane azpierzemua", 2.950 m²-ko azalerarekin. Batetik, lehengo eraikigarritasuna finkatuko da (550 m²(t) inguruko azalera eraikiarekin) eta sestra gaineko eraikigarritasuna 660 m²(t) handitzeko eta sestra azpikoa 270 m²(t) handitzeko baimena emango da. Azpierzemuan antolatu beharreko etxebizitza berrien gehieneko kopurua 3koa izango da, eta aurreikusitako eraikigarritasun berriari dagokio.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Azpieremuan esku hartzeko Plan Berezi bat izapidetu beharko da. Plan Berezi horren testuinguruan inpaktu akustikoaren azterketa egin beharko da eta azterketa horretan zehaztuko dira antolamendu xehatua, zuzkidura publikoen eta tokiko espazio libreen definizioa barne, beste batzuen artean, eta baita kudeaketa- eta jarduketa-baldintzak ere. Ateratzen diren bizitegitarako lurzatiek Zelai ibaiaren ezkerreko aldeko bidetik izango dute sarbidea.

Orain arte erabilera hiritarrak izan dituen balio estrategiko handiko lurzoru artifizializatu gabeen (1.600 m² gutxi gorabehera) duen eragin eskasa kontuan hartuta, esku-hartzearen eragina onargarritzat jotzen da, egin diren ingurumen- eta nekazaritza-ebaluazioetan larrizat jotzen den eragina ageri den arren.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: onartzea alegazioko bi eskaerak, txostenean jasotakoaren arabera.

BEDERATZIGARREN ALEGAZIOA

Manuela Arricarte andreak aurkeztutako idazkia. (1.516 erregistro-zk. - 16/08/05)

IDAZKIAREN EDUKIA

Alegazio-jartzailea Ibaigaineko 6 zenbakiko higiezinaren jabetza-komunitatearen ordezkari gisa ari da eta "5.1 Eliz aurre" azpierrearen antolamendu-proposamena doitzeko eskatzen du. Azpierre horretan dago komunitatearen jabetzako eraikina eta aurreikusitako hegoaldeko lerrokadura aldatzea eskatzen du, ondoriozko lurzattia handituz 450 m²-ko azalerako sotoa egikaritu ahal izateko, beheko solairuan bizitegi-erabilera baimenduz eta lurzattia eraiki ahal izango den etxebizitza-kopurua handituz edo mugatuz.

Beste argudio batzuen artean adierazten da Plan Orokorrean planteatutako proposamenak ez duela aukerarik ematen nahikoa aparkaleku egikaritzeko, aurreikusitako eraikin berriaren garaiera ez dela behar adinakoa eta eraikinaren hegoaldeko lerrokadura, Zelai ibaiaren paraleloa, zehaztu egin behar dela.

Egindako proposamena irudikatzen duten hainbat grafiko erantsi dituzte, eta lur azpiko bi antolamendu-aukera ere jarri dituzte.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Alegazio-jartzaileak aspalditik ari dira planteatzen Ibaigaineko 6 zenbakiari dagokion eta lehendik dagoen eraikina ordeztuko aukera. Udalak ontzat eman du aukera hori eta horrek justifikatzen ditu Plan Orokorrak proposatutako hirigintza-zehaztapen berriak. Zehaztapen horiek, helburu partikularrari ez ezik, interes publikoari ere erantzun nahi diote, Zelai ibaiaren eta ibaia zeharkatu eta San Bartolome plazara zuzenean ematen duen zubiaren aldamenearan kokatutako hiriguneko leku berezi baten ingurumen- eta hiri-hobekuntza ahalbidetuz.

Idazkiak ez du proposamena zalantzan jartzen, baina eraikigarritasun handiagoa eskatzen du, sestra gainean nahiz azpian.

Edukia aztertuta, lurzatia handitzea eta sestra azpian antolatutako eraikigarritasuna handitzea ontzat eman daitekeela uste da alegazioan aurkeztutako 1. aukerari erreparatuz, baina Udalak uste du sestra gaineko eraikigarritasunaren lerrokadura birdoitu daitekeela.

Bestalde, eraikin berrirako proposatutako profila, lurzatian gaur egun dagoena baino handiagoa, inguruko eraikinen altuera kontuan hartuta antolatu da, esku aratean dugun lekuan, Udaletxeko plazatik eta San Bartolome elizako dorretik hurbil, eraikuntza-profila gehiago handitzea, alegazioan proposatzen den bezala, zentzuzkoa ez dela ulertuta.

Eraikinak udalerriko hirigunearan duen kokapen bereziari eta hirigune horretan lehendik dauden erabilerei erreparatuta, beheko solairua ekipamendu-erabilerarako eta hirugarren sektoreko erabilerarako mantentzea planteatzen da, hor bertan ezkaratza eta sestra azpiko solairuetarako sarbidea egotearen kalterik gabe.

Baina esku-hartzea errazte aldera, azpierzemuko etxebizitzaren gutxieneko batez besteko tamaina 70 m²(t)-koa izateko salbuespena sartzea berariaz ahalbidetzea proposatzen da.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzarak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea partzialki Elizaureraz azpierzemuekin loturiko alegazioa.

BIGARRENA: Alegazioan jasotako 1 aukerari jarraituz, lursaila eta sestra azpiko eraikigarritasuna zabaltzea; sestra gaineko eraikinaren lerrokadura birdoitzea. Bizitoki lursaila, ondorioz, berriz zehaztea, sestra azpiko eraikigarritasun handiagoa ahalbidetuz, txosteneko 2 eta 3 eranskinetan jasotakoaren arabera (2017ko otsaileko txostena, jendaurrealdiari dagokiona)

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Erabilera publikoko eremua birrantolatzearen helburuei dagokienez, sestra gainean eraikitzea baimentzen ez den lursail ordenatuaren gainean, zortasun publikoa ezartzen da. Eremu horretan ezingo da sotoetarako sarbidea kokatu, espaloi, galtzada edo aparkalekuetara erreserbatu direlako. Antolamendu xehetuaren baldintzak, beraz, birdoitu egiten dira.

HIRUGARRENA: Izaera orokorrarekin proposaturiko tamaina murriztea, 70 m² (t) izango da, eskuhartzea errazte aldera.

LAUGARRENA: Ezestea gainerako proposamenak eta mantentzea sestra gaineko aurreikusitako erabilerak, baldintzak, eta profila.

HAMARGARREN ALEGAZIOA

José Cecilio Insausti Iturrioz jaunak aurkeztutako idazkia. (1.518 erregistro-zk. - 16/08/08)

IDAZKIAREN EDUKIA

Bere izenean eta familiaren ordezkari gisa, "5.2 lbategi" azpieroan kokatutako lurren jabe gisa, Planean irudi bidez aurreikusitako antolamendu-proposamen alternatiboa aurkeztu dute, konparaziozko hainbat abantaila dituela eta, aldi berean, eraikigarritasun handiagoa aurreikusteko aukera ematen duela adieraziz. Proposatutako jarduketaren bideragarritasunak azterketa zehatza eta xehatua behar duela ere adierazi dute.

Bestalde, hasierako onespenean txertatutako I. eranskineko lehen ondorioa desegokitzat jotzen da eta zalantzan jartzen da.

Egindako proposamenaren grafiko adierazkorra gehitu da.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Proposamena aztertu ondoren, azkenean egiten den jakineko antolamendu xehetuaren kalterik gabe, hura aintzat hartzeak lbategi azpieroak hasiera batean planteatutakoa baino eraikigarritasun handiagoa hartzeko ahalmena duela egiaztatzeko aukera eman duela uste da.

Proposamena proiektua garatzeko prozesuaren testuinguru orokorrean formulatu da, beste erabaki batzuk osotasunean kontuan hartuta.

Horretarako, kontuan hartu dira lbategi azpieroaren aldamenean dagoen Malkorrenea-Eskuzarre azpieroarako planteatutako eraikinaren profilarren doikuntza eta Ezeizaenea-Erekondone azpieroarako hartutako erabakiak, non, bizitegi-garapen berririk ez aurreikustea hautatu baita.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Ipuzluoa)
Euskal Herria

Horren guztiaren ondorioz, sestra gaineko eraikigarritasuna handitzea proposatzen da, eta 10.030 m²(t) aurreikusten dira bizitegitarako eta 500 m²(t) gehigarri merkataritza-erabilerarako eta beheko solairuko ezkaratzetarako; halaber, sestra azpiko eraikigarritasuna handitzea ere proposatzen da, 6.250 m²(t) aurreikusiz garajetarako.

Udalaren irizpide orokorra kontuan hartuta, 3.226 m²(t) erabiliko dira babes ofizialeko etxebizitzetarako eta 1.843 m²(t) etxebizitza tasatutarako, Etxebizitzaren 3/2015 Lege berria betez.

Horretarako, espazio libreen sistema orokorretarako azpieroemuen azalera murriztea proposatzen da (ikus 3. Eranskinen grafiko). Murrizketa hori, ordea, Ezeizaenea- Errekondone azpieroemuen konpentsatzen da, lbategin ateratzen den bizitegi-eraikigarritasunaren gehikuntza ere kontuan hartuta.

Hori dela eta, Planak behar diren kudeaketa-mekanismoak aurreikusten ditu eta, horren ondorioz, "2.1 Behekobide" azpieroemuko ("F.1 Espazio libre hiritarrak (ZO) zona orokorra nagusiki) jabetza pribatuko lurren % 53,29 "5.2. lbategi" azpieroemurako aurreikusitako hirigintza-garapenarekin lotzen da.

Orokorrean ondorioztatzen denari erreparatuta, programazio-baldintza berri batzuk ezartzea ere planteatzen da. Hala, "5.2. lbategi" azpieroemuen sustatu beharreko Plan Berezia Plan Orokorren indarraldiko lehen lau urteetan sustatu eta onartuko da.

Bestalde, txosten honetan aurretik ere adierazi den bezala, Planaren (I. eranskina – Lehena) hasierako onespenean txertatutako Arana eta Montes baserrietako baratzeei buruzko baldintzak kentzea proposatzen da, eta alegazio-jartzaileek gaiari buruz adierazten dutenari erantzuten zaio horrela.

Aurreko guztiari erreparatuta, aipaturiko baldintzetan aurkeztutako alegazioak aintzat hartuko dira.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzako, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea aurkezturiko lehen alegazioa, txostenean jasotakoaren arabera.

BIGARRENA: Hiri antolamenduaren plan orokorraren II. liburuko "2. Hirigintza-arauak" jasotzen duen 6.1 C artikulua mantentzea eta ez aldatzea, hasierako onarpenaren eranskinaren lehen puntuko baldintzetan jasotzen zena aldatuz. 6. artikulua.- Plan Orokorra berraztertzeke baldintzak.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HAMAIKAGARREN ALEGAZIOA

M^a Dolores Pagola andreak eta beste batzuek aurkeztutako idazkia.(1.520 erregistro-zk. - 16/08/08)

IDAZKIAREN EDUKIA

M^a Dolores Pagola Aguinagalde andrea, M^a Pilar Iturrioz Pagola andrea eta M^a Teresa Iturrioz Pagola andrea Gurutzeaga handi baserriaren jabeak dira eta bertan bizi da lehenengoa. Hainbat aurrekariri buruzko aipamena egin ondoren, “1.1 Gurutzeaga” azpieroak zuzkidura-jarduketako eremu baten baldintzak betetzen dituela diote eta harridura adierazten dute Gurutzeaga berriko eraikuntza finkatu egiten dela eta Gurutzeaga handikoa, aldiz, antolamenduz kanpo uzten dela ikustean. Mantentze partzial hori justifikaezina dela uste dute, eta konparaziozko bidegabekeria onartezina eragiten duela adierazten dute.

Beraien esanetan azpieroarako aurreikusitako bide berria ez da beharrezkoa, ingurumen-inpaktu handia du, oso garestia da, ez du errespetatzen hiri-irrisgarritasunaren printzipioa, trafikoa baretzeko oinarri eta irizpideen aurka doa eta ekonomia-printzipioaren kontrakoa da; gainera, zalantzan jartzen dute babes publikoko etxebizitza-ehunekoa.

Hori guztia kontuan hartuta, Plan Orokorrak “1.1 Gurutzeaga” azpieroarako egindako proposamena bideraezina dela ondorioztatu eta proposamen hauek egin dituzte: Gurutzeaga handi baserria finkatzea, eraikin nagusiaren eranskinak ezabatuz; azpieroaren gainerakoa zuzkidura-jarduketatzat jotzea, bere antolamendua aldatuz eta aurreikusitako bide berriaren trazadura kendu eta horren ordean espazio libreen 750 m² jarritz; Plan Orokorrean aurreikusitako bizitegi-eraikin berriaren eta dagokion eraikigarritasunaren proposamenari eustea; eta Emeterio Arrese eta Otarreaga kaleen arteko elkargunea zabaltzea.

Modu subsidiarioan, ondoriozko azpieroak zuzkidura-jarduketatzat jotzeko proposamena aintzat hartzen ez bada, etxebizitza babestuen ehunekoak lege xedatutako gutxienekoetara mugatzea eta azpieroak eraikigarritasunaren gehitzeagatik finkatu gabeko hiri-lurzorutzat jotzea proposatzen da Udalaren lagapenen xedeetarako.

Egindako antolamendu-proposamen alternatiboaren grafiko adierazkorra gehitu da.

Modu gehigarrian eskatzen dute bere garaian egindako lagapenei dagozkien hirigintza-eskubideak aitortzeko.

Halaber, Emeterio Arrese kaleko 4 eta 6 zenbakietako beheko solairuetako lokaletan bizitegi-erabilera baimentzea eskatzen dute.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Gurutzeaga inguruneari dagokionez, hainbat antolamendu-proposamen aztertu dira Ibarra plangintza orokorraren berrikuspen-prozesua dela eta, jendaurrean edukitako dokumentuek erakusten duten bezala eta alegazio-jartzaileek dakiten bezala.

Proposamen horiek irtenbide egokiena nahi zuten eremurako, interes publikoari eta aurrekariari erreparatuz, eta jarduketaren bideragarritasunerako kudeaketa-baldintza egokiak ahalbidetzen ahaleginduz.

Horregatik, nahitaezkoa da hemen adieraztea arrazoirik gabekotzat jotzen direla aurkeztutako idazkian egindako bidegabekeria- eta zigor-akusazioak.

Idazkiaren edukiari dagokionez, hasierako onespina jaso duen Plan Orokorraren dokumentuan proposatutako irtenbideak, hasiera batean, eremuaren hiri-birkalifikazioa ahalbidetzen duen berrantolaketa-helburuari erantzuten diola adierazten da.

Horretarako, Otarreaga kalearen trazaduraren berrantolaketa diseinatu da eta Emeterio Arrese – San Inazio eremurako sarbidea Apatza Erreka kalearen jarraipen gisa antolatzea proposatu da, behar diren ordena eta oreka ahalbidetuz eta mugikortasun-baldintza egokiak izaten lagunduz, motordunentzat nahiz ez-motordunentzat (oinezkoak eta bizikletadunak), eta baita segurtasun-baldintza egokiak eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzak ere.

Horretarako, alegazio-jartzaileen lurretan bizitegi-eraikigarritasun berri bat antolatzea aurreikusi da, eta horren guztiaren ondorioz Gurutzeaga handi baserria eraisteko proposamena egin da.

Testuinguru horretan, alegazio-jartzaileek proposatutako irtenbide alternatiboa aztertu ondoren, udal-helburuei behar bezala ez diela erantzuten egiaztatu da, eta Apatza Erreka kaleari Emeterio Arrese kalean jarraipena emateko helburuari eutsi dio Udalak, eremuan ondo txertatuz eremuaren ingurumen-birkalifikazioa ahalbidetzen duen ekimena dela uste duelako, alegazio-jartzaileek argudiatzen dutenaren aurka.

Idazkian adierazi den bezala, Plan Orokorrak proposatutako irtenbideak Gurutzeaga berri finkatu egiten du, lurzati horretan esku-hartze puntualen bat egitearen kalterik gabe. Horrek, bestalde, aukera ematen du lurzati hori "1.1 Gurutzeaga" azpieroemurako aurreikusitako jarduketa integratutik kanpo uzteko. Jarduketa hori, bestalde, ezin da zuzkidura-jarduketatzat jo proposatzen den guztiaren norainokoa kontuan hartuta, bai aukeratutako irtenbidean eta bai alegazio-jartzaileek proposatutakoan.

Bestalde, Plan Orokorrean behar bezala justifikatzen denez eta aurkeztutako alegazioan kontrarik justifikatzen ez denez, esku-hartzea bideragarria da Plan Orokorrean planteatutako

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

baldintzetan. Horrela, egin beharreko urbanizazioak proposatutako eraikigarritasun-baldintzak betetzen ditu, eta ezinbestekoa da antolatuko den bizitegi-lurzati berriari behar dituen irisgarritasun-baldintzak emateko.

Idazkiak zalantzan jartzen du Plan Orokorrean azpieroemurako aurreikusitako babes publikoko etxebizitza-ehunekoa ere, eta, esku artean dugun kasuan bezala, Udalak jarduketa integratuko garapen berri guztientzat ezarritako irizpide orokorrari erantzuten diola adierazten du, Udalak berretsi egiten duen irizpidea. Esan beharra dago zehaztapen hori kontuan hartu dela jarduketaren bideragarritasun ekonomikoaren justifikazioan.

Idazkiak, bestalde, bere garaian egindako lagapenei atxikitako hirigintza-eskubideak aitortzea planteatzen du, eta kontu hori "1.1 Gurutzeaga" azpieroemurako zehaztutako jarduketa integratua egikaritzeko sustatu behar den Hirigintzako Jarduketa Programa egiteko testuinguruan baloratu beharko dela adierazten du.

Azkenik, Emeterio Arrese kaleko 4 eta 6 zenbakietako beheko solairuetako lokaletan bizitegi-erabilera baimentzea planteatzen da. Kontu horrekin lotuta, Udalak egoera hori berariaz arautzen duen ordenantza bat duela adierazten da, eta proposamenaren balizko aldaketa bat esparru horren barruan baloratu beharko dela ulertzen da. Beraz, Plan Orokorraren testuinguruan ez da proposatzen idazkian jasotako kasuistika berezi horren jakineko ebazpena.

Beraz, alegazioa aintzat ez hartzea proposatzen da.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzat, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: EZESTE ALEGAZIOA, txostenean jasotako arrazoietan oinarrituta.

BIGARRENA: Bere garaian egindako lagatzen hirigintza-eskubideak aitortzea. Alderdi hori baloratu beharko da Jarduketa Programa Hiritartzailea egiten denean, hain zuen, "1.1 Gurutzeaga" azpieroemuan zehazturiko jarduketa integratuaren exekuzioa sustatzekoa.

HIRUGARRENA: Proposaturiko tamaina murriztea izaera orokorrarekin, 70 m² (t) izango da esku-hartzea errazte aldera.

HAMABIGARREN ALEGAZIOA

M^a Jesus Galarza Arregui andreak aurkeztutako idazkia. (1.526 erregistro-zk. - 16/08/08)

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IDAZKIAREN EDUKIA

“3.2 Toki ona” azpierzemuko hainbat finkaren jabe gisa, eta Plan Orokorrek egindako proposamena azaldu eta sortu den egoera deskribatu ondoren, lehendik dauden eraikineko eta lurzati bixtanleen eskubideak bermatzeko, 1.100 m²(t) baino gutxiagokoa izango ez litzatekeen bizitegi-erabilerarako sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasuna aurreikusi beharko litzatekeela planteatzen du, hirugarren sektoreko erabileretarako eraikigarritasuna ezabatuz.

Egindako antolamendu-proposamen alternatiboaren grafiko adierazkorrek gehitu dira.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Plan Orokorra idatzi behar zela eta, hainbat antolamendu-aukera aztertu dira Toki onaren hiri-ingurunea ingurumen-ikuspegitik birkalifikatzeko eta irisgarritasun unibertsalaren baldintzak hobetzen laguntzeko.

Horren ondoriozkoa da aukeratutako irtenbidea.

Aurkeztutako alegazio-idazkia aztertu ondoren, ez da zentzuzkotzat jotzen proposatutako eraikuntza-profila handitzea eta, aldi berean, eremuko baldintza topografikoek galarazi egiten dute ondoriozko eraikineko beheko solairuaren (erdisotoa) etxebizitza-erabilera egokia.

Beraz, ez da zentzuzkotzat jotzen, eskatzen den bezala, azpierzemuaren eraikigarritasuna 1.100 m²(t) baino gehiagora igotzea.

Bestalde, proposatutako irtenbideak azpierzemuko esku-hartzea errazten duela adierazten da, lehendik dagoen eraikuntza finkatzeko aukeraren aurrean bideragarritasun-baldintzak nabarmen hobetzen dituelako eta egin beharreko hirigintza-obra osagarriak egokiak direlako, hasierako onospena duen Plan Orokorren dokumentuan jasota dagoen bezala.

Baina azpierzemuan esku hartzea errazte aldera, goiko solairuetako eraikuntzarako proposatutako eraikuntza-sakonera handitzea proposatzen da, bizitegi-eraikigarritasuna 630 m²(t)-ra helaraziz, eta Argindegi azpierzemurako planteatu den bezala, berariaz ahalbidetuz “3.2 Toki ona” azpierzemuko etxebizitzaren gutxieneko batez besteko tamaina 70 m²(t)-koa izateko salbuespena sartzea.

Azpierzemuko aplikazio-estandarrak betetzeko xedez, azpierzemuan ateratzen den bizitegi-eraikigarritasunak (630 m²(t)) espazio libretarako 104 m²-ko azalera eta zuzkidura lokaletarako 126 m²-ko azalera eskatzen dituela adierazten da. Eskaera horiek bete egiten dira azpierzemuan

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

antolamendu xehatuko baldintzak birdefinituz, espazio libretarako 219 m² eta zuzkidura publikotarako 221 m² dituelako.

Horregatik, alegazioa atzera botatzea proposatzen da, adierazitako doikuntzaren kalterik gabe.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: EZESTEIA alegazioa, erantzunen txostenean emandako arrazoiaren arabera.

BIGARRENA: Birdoitzea eremuaren baldintzak, txostenean jasotako konponbidearen arabera

HIRUGARRENA: Proposatutako tamaina murriztea izaera orokorrarekin, 70 m² (t) izango da esku-hartzea errazte aldera

HAMAIRUGARREN ALEGAZIOA

Jose Luis Lopetegi Aguirre jaunak aurkeztutako idazkia. (1.535 erregistro-zk. - 16/08/09)

IDAZKIAREN EDUKIA

Gurutzeaga berri baserriaren jabe gisa, bere jabetzako lurzatian sestra azpian eraikitzeko aukera aintzat ez hartzea planteatzen du eta, ondorioz, jarduketa isolatu gisa hartzea eta ez zuzkidura-jarduketa gisa.

40 m²-ko azalera baten lagapen urbanizatua planteatzen da espaloitarako, xede horretarako hirigintza-hitzarmen bat sinatuta; eta, bestalde, 1.2 azpiero mugetako 62 m²-ko azalera 1.1 azpieroan lagapenerako txertatzea planteatzen da.

Halaber, baserriaren altuera gailurrerainoko 12 metrora altxatzea baimentzea eskatzen da, baina egungo eraikigarritasunarekin jarraituz, bizigarritasun-baldintzak hobetu ahal izateko.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Azkenik, dagokion Hirigintza Arau Partikularrak HAPOk Hirigintza Arau Orokorretako 49.1 artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondoriozko gehieneko etxebizitza-kopurua adieraz dezan eskatzen da.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Txosten honetan adierazi den bezala, Plan Orokorreko proposamenak Gurutzeaga berri finkatu du eta eremuko jarduketa-baldintzak zehaztu ditu. Idazkiak ez du zalantzan jartzen proposamena baina ñabardura batzuk proposatzen ditu sestra azpian antolatutako eraikigarritasun berriari dagokionez eta jarduketa-baldintzei dagokienez. Proposamena aztertu ondoren, sestra azpiko eraikigarritasun berri bat ahalbidetzeko egindako aurreikuspena ezaba daitekeela uste da. Hala ere, horren ondorioz beheko solairuan aurreikusi beharko da garaje-zuzkidura, eta horrek gehieneko etxebizitza-kopurua murriztuko du, Planaren zehaztapenen zuzeneko aplikaziotik ondorioztatutako dena. Eraikigarritasun berri baten aurreikuspena ez planteatzeak, bestalde, jarduketa isolatutzat jotzeko eta zuzkidura-jarduketatzat ez jotzeko aukera sortzen du.

Dena den, ez da inolaz ere justifikatzen Gurutzeaga berriko lurzati bat jarduketa isolatutik kanpo uztea eta 1.1 azpieremuan txertatu nahi izatea, 1.2 azpieremuan proposatutako espazio publikoen antolamendu-proposamena eta bertan esku-hartzearen ondorioz obra osagarri gisa urbanizatuta jasotzeko proposamena berretsiz, dagokion hirigintza-hitzarmenaren bidez obra horiek aurreratu ahal izatearen kalterik gabe.

Bestalde, eraikinaren gehieneko altuera gailurrerainoko 12 metrora altxatzea baimentzea ontzat ematen da, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko helburuarekin, baldin eta, idazkian adierazten den bezala, egungo eraikigarritasunarekin jarraitzen bada.

Udal arkitektoaren aldeko txostena ikusirik

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzako, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea partzialki alegazioa eta ezestea 62 m² baztertzea 1.2 azpieremutik, ondoren 1.1 azpieremuan txertatzeko.

BIGARRENA: Sestra azpiko eraikigarritasuna kentzea eta baldintzatzea gehieneko etxebizitza kopurua lur hiritargarriko batez besteko gutxieneko eraikigarritasunera eta etxebizitza bakoitzeko

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

aparkaleku dotaziora, berau, behe solairuan aurreikusi beharrekoa, eta aparkaleku 1 izango da etxebizitza bakoitzeko.

HIRUGARRENA: Jarduketa isolatutzat hartzea

LAUGARRENA: Baimentzea goihabeko altuera 12 m igotzea, betiere, egungo eraikigarritasuna mantentzen bada.

HAMAULAGARREN ALEGAZIOA **Serapia Urruzola Izagirre andreak eta beste batzuek aurkeztutako idazkia.**

(1.536 erregistro-zk. - 16/08/09)

Serapia Urruzola Izagirre andreak, Luis Izagirre Urruzola jaunak eta Inmaculada Izagirre Urruzola andreak, "6.1 Zaldune" azpierzemuko lur eta eraikinen eta aipaturiko lurretan kokatutako nekazaritza-ustiapenaren jabe gisa, beraien jabetzako lurak eta eraikina egungo baldintza beraietan uztea eskatzen dute, hau da, baserria eta nekazaritza-erabilerako lurak mantentzea.

Beraz, Zaldune azpierzemuak hasierako onospena duen Plan Orokorrean proposatutako baldintzetan garatzearen aurka daude. Bestalde, lehendik dagoen eraikinean hiru etxebizitza daudela adierazten dute eta ez bi Plan Orokorrek oker jasota duen bezala.

Halaber, Luis Izagirre jaunak azpierzemuko lurretan duen nekazaritza-jardueraren deskribapena egin dute, Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko LAPean xedatutakoaren arabera balio estrategiko handiko lurzorua dela azalduz.

Arestian azaldutako guztia ez bada onartzen, idazkian adierazten da proposatutako jarduketaren bideragarritasun ekonomikoaren ebaluazioa ez dagoela behar bezala justifikatuta eta arrazoituta, eta zalantzan jartzen dela egindako ebaluazioa. Bestalde, Plan Orokorrean kontuan hartutako kargak eta kostuak gorantz berrikusi beharko lirakeela ere adierazten da, egungo errealitate ekonomiko eta sozialarekin bat etorritik, eta egoera berriak Izagirre jaunaren jarduera ekonomikoan eragingo duen ziurgabetasunarekin.

Modu subsidiarioan baita ere, kalearen beste aldean dagoen beheko solairuko eraikina azpierzemuan ez txertatzeko, eremurako zuzkidura-lurzati baten aurreikuspena baztertzeko eta aparkaleku-zuzkidura hain handia antolatzea ez eskatzeko edo etxebizitza babestuen ordean etxebizitza libre antolatuen kopurua handitzeko edo, bestela, dagokion % 15eko hirigintza-erakigarritasunaren arabera, Udalak aparkaleku horiek bereganatzeko konpromisoa hartzeko eskatzen da.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Modu subsidiarioan baita ere, proposamenari lehengoan eustekotan, egikaritzea Plan Orokorraren bigarren laurtekora atzeratzea planteatzen da.

IDAZKIAREN BALORAZIOA

Plan Orokorrak "6.1 Zaldune" azpierzemurako duen proposamenak hiri-hutsuneak betetzeko eta hiri-bilbearen jarraitutasun-baldintzak errazteko udal-helburuari erantzuten dio, hirigunea indartuz eta Plaza-Azkue eremuko garapenak txertatzea bideratuz.

Helburu hori Udalak berretsi du udal-proiektua garatzeko prozesuaren ondorio gisa, eta erabaki horrek berekin du egindako alegazioa atzera botatzea.

Hala eta guztiz ere, ondoren baloratuko da alegazio-jartzaileek modu subsidiarioan egindako proposamena.

Hala, proiektua garatzeko esparru orokorrean, Zaldunen bizitegi-garapen bat sustatzeko helburua berresteaz gain, "6.1 Zaldune" azpierzemuak hasiera batean planteatutakoa baino eraikigarritasun handiagoa hartzeko duen ahalmena egiaztatu da.

Beraz, sestra gaineko eraikigarritasuna handitzea aurreikusten da, eta 8.670 m²(t) aurreikusten dira bizitegitarako eta 640 m²(t) gehigarri merkataritza-erabilerarako eta beheko solairuko ezkaratzetarako; garajetarako aurreikusitako sestra azpiko eraikigarritasuna mantendu egingo da.

Udalaren irizpide orokorra kontuan hartuta, 2.731 m²(t) erabiliko dira babes ofizialeko etxebizitzetarako eta 1.560 m²(t) etxebizitza tasatutarako, Etxebizitzaren 3/2015 Lege berria betez.

Garaje-zuzkidura gehigarritarako sestra azpiko hirigintza-eraikigarritasuna aurreikusteko helburuak ere berretsi egin dira, eta baita ekipamendu publikotarako eraikigarritasun fisikoa ere.

Modu integratuan, azpierzemuan ondorioztatzen den bizitegi-eraikigarritasuna handitzeari erantzuna emateko, udal-proiektuak egoera horri neurri batean erantzuna emango dion espazio librean sistema orokorretarako azalera antolatuko du "2.1 Behekobide" azpierzemuan. Hori dela eta, Planak behar diren kudeaketa-mekanismoak aurreikusten ditu eta, horren ondorioz, "2.1 Behekobide" azpierzemuko ("F.1 Espazio libre hiritarrak (ZO) zona orokorra nagusiki) jabetza pribatuko lurren % 46,71 "6.1. Zaldune" azpierzemurako aurreikusitako hirigintza-garapenarekin lotzen da.

Hala, haren bideragarritasun-baldintzak hasierako onespena duen Plan Orokorraren dokumentuan justifikatuta egotearen kalterik gabe, orain planteatzen den eraikigarritasunaren handitzeak, lehen aipaturiko loturaren kalterik gabe, jarduketaren bideragarritasuna errazten du, idazkian modu subsidiarioan eskatzen den guztiari nolabait erantzunez.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Testuinguru horretan, kontuan hartu dira bai lehendik dagoen etxebizitza-kopurua (hiru), taula batean errore bat aurkitu den arren, bere garaian zuzenduko dena, eta bai Luis Izagirre jaunak azpierenmuko lurretan egiten duen nekazaritza-jarduera, antolamendu xehatuko baldintzak eta kudeaketa-baldintzak zehazten joango diren ondoz ondoko faseetan zehaztasun handiagoz ebaluatzearen kalterik gabe.

Halaber, Plan Orokorrek Nekazaritza eta basogintza antolatzeko LAPeko zehaztapenak kontuan hartu ditu Zaldune eremuko lurzoruen inguruan eta dagokion ebaluazioa egin du.

Bestalde, kalearen beste aldean kokatutako beheko solairuko eraikina azpierenmuan ez txertatzea eskatzen da, eta Udalak helburu horren aukera berretsi du.

Udalak, txosten honetan lehen adierazi den bezala, esku artean duguna bezalako jarduketa integratuen xede diren garapen berri guztietarako Plan Orokorrean aurreikusitako babes publikoko etxebizitza-ehunekoa berretsi du. Esan beharra dago zehaztapen hori kontuan hartu dela jarduketaren bideragarritasun ekonomikoaren justifikazioan.

Udalak, berari dagokion hirigintza-eraikigarritasunaren % 15aren arabera etxebizitza antolatuei dagokien zuzkidura gaitzen duten aparkalekuak bereganatzeko konpromisoa hartzea proposatuz egiten den proposamenari dagokionez, aukera hori jarduketa egikaritzen denean baloratu ahal izango dela adierazten da.

Azkenik, azpierenmuan egikaritzea Plan Orokorreko bigarren laurtekora atzeratzea ere proposatzen da. Udal-proiektuaren testuinguru orokorrean hasieran proposatutako programazio-baldintzak doitu daitezkeela ulertzen da, "6.1 Zaldune" azpierenmurako sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Berezia Plan Orokorrearen indarraldiko sei urteetan sustatu eta onartuko dela planteatuz.

Arestian azaldutako guztiari erreparatuz, aurkeztutako alegazioa atzera botatzearen kalterik gabe, modu subsidiarioan formulatutako proposamenak partzialki aintzat hartzea proposatzen da, balorazio honetan jasotzen den guztiarekin bat etorritz.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENA: EZESTEIA lehenengo alegazioa, hain zuzen, baserria eta nekazal lurak mantentzekoa, beharrezko jotzen delako udalaren helburua betetzeko, alegia hutsune hiritarrak osatzea eta eta hiri-bilbearen jarraitasun baldintzak erraztea; horrela, hiritar eremua indartuz eta plaza-Azkue inguruko garapenak txertatuz .

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA: Mantentzea azpierzemurako helburuak, hau da, aparkaleku dotazio gehigarria eta ekipamendu publikorako eraikigarritasun fisikoa sortzea, eta azpierzemuan mantentzea kalearen bestaldeko behe-oineko eraikinak okupaturiko azalera.

HIRUGARRENA: Mantentzea babestutako etxebizitza kopurua, HAPO honetarako irizpide orokor gisa ezarria.

LAUGARRENA: Onartzea partzialki subsidiarioki eginiko proposamenak, balorazioan esandakoaren arabera.

Handitzea hasierako eraikigarritasuna, azpierzemuaren gaitasuna kontuan izanda. Azpierzemuko bizitoki eraikigarritasunaren handitzeari erantzuna emateko. Udal proiektuak "2.1 Behekobide" azpierzemuan, eremu libreko sistema orokorrerako azalera antolatzen du, eta horrek egoera honi erantzuten dio, neurri batez. Ondorioz, planak jasotzen ditu kudeatze mekanismoak, halako moldez non "2.1 Behekobide" ("F.1 eremu libre hiritarrak eremu globala) azpierzemuko jabego pribatuko terrenoen %46,71 lotzen zaion "6.1 Zaldune" azpierzemuan aurreikusitako hirigintza-garapenari.

Plan Orokorraren indarraldiaren lehen sei urteetan zehaztu beharko da Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

Zuzentzea lehendik dauden etxebizitza kopurua (3)

SEIGARRENA:

BESTE ADMINISTRAZIOEK IBARRAKO HIRI ANTOLAMENDU PLAN OROKORREKO PROZESUAN EGINDAKO TXOSTENEN BALORAZIOAK ETA ONDORIOAK ONARTU ETA JASOTZEA.

Planari hasierako onspena eman zitzaionean hainbat arlotan eskudunak diren erakunde eta administrazio sektorialeiei eman zitzaien akordioaren berri. Espedientean jasota dagoen bezala, hainbat jakinarazpen bidali ziren.

Ondorengo idatziak jaso ziren

- Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren txostena, Telekomunikazio arloan duen eskumenari buruzkoa, Udalak 2016ko uztailaren 14an jasotakoa.
- URAko Obra Plangintzako zuzendariaren idatzia, Udalak 2016ko uztailaren 20an jasotakoa.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegitura saileko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusiaren txostena, errepide eta bideen antolamenduari buruzkoa, Udalak 2016ko uztailearen 22an jasotakoa.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) txostena, Udalak 2016ko abuztuaren 8an jasotakoa.
- Sustapen Ministerioko Garraioen Idazkaritza Nagusiko Hegazkintza Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena, aireportuetako erasanen arloko eskumenari buruzkoa, Udalak 2016ko abuztuaren 30ean jasotakoa.
- Ingurumen-organoaren txostena. Ibarra HAPOn Ingurumen Inpaktuaren Aurretiko Txosten berri gisa bidalitakoa, Ibarra plan orokorraren tramitazio luzearen testuinguruan.

Kontuan hartu dira, beste batzuen artean, prozesuan egindako txosten hauek: Gipuzkoako Ur Kontsoltzioak ur-baliabideen arloan egindakoa, eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburuordeak arrisku-arloan egindakoa.

Aipaturiko txosten guztiak baloratu eta Plan Orokorraren agiria egokitu da. 2017ko jendeaurrean edukitzeko izapideari buruzko txostenean jaso dira aldaketak.

Agiria aztertutik

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzako, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea aipaturiko agirian jasotzen diren aldaketak Hirigintza batzordean egindako bileren erabakiak jasotzen dituelako.

ZAZPIGARRENA:

HASERAKO ONESPENEN BALDINTZAK, HIRIGINTZA ARAU OROKORRAREN ERREBISIOA II. LIBURUAREN ONARPENA

Planari hasierako onespena eman zitzaionean, 2016ko otsaileko II. Liburua

“2.1. HIRIGINTZA-ARAU OROKORRAK” izeneko dokumentuan jaso beharreko aldaketak onartu ziren, hain zuzen, hartutako erabakiaren I. eranskinean. Orain, 2017ko otsaileko datarekin 2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

aurkeztu da egokitutako agiria. Agiri horretan ere jasotako txostenen ondorioz egin beharreko aldaketak eta zuzenketak egin dira.

Azkenik, kultura sailarekin, ingurumen sailarekin eta obra eta zerbitzuetako sailarekin udal arkitektoak egindako bileren ondorioz, zenbait aldaketa egitea proposatu da.

Hona hemen aldaketen arrazoiak

- Fisis, ileapaindegi eta horrelako zerbitzuen lokaletan irisgarritasun araudiari egokitutako komunak jartzea eskatzea eta salbuespenak zehaztea.
- Ibarra herrian lokalen gutxieneko azalera 12 m² zehaztea.
- Aparkaleku berriak sortzeko, gutxienez 3 plaza egon beharko dira.
- San Inazio, Uzturre, Argindegi etab. etxebizitza taldeetako fatxaden berritze-lanetan, irizpide bateratuak jartzeko aukera izango du udalak.
- Toldoak. Portxea duten aurrealdeetan ez da toldorik jartzen utziko.
- Arau orokorretatik irisgarritasuna bultzatzeko ordenantza kendu, Ibarra indarrean dagoena mantenduz.
- Babes bereziko landa lurretan dauden zuhaitzak mozteko udal lizentzia beharko da. (erosio handiko eremua, paisaia mantentzeko...)
- Jarduera lizentziak 12 hilabetetara iraungiko dira.
- Hiri lurzoru ez kontsolidatuan gutxieneko aparkaleku kopurua zehaztea.
 - Dotazio jarduketetarako azpierzemutan etxebizitza bakoitzeko aparkaleku bat, espazio pribatu nahiz publikoan ordenaturik.
 - Jarduera integratuetan etxebizitza bakoitzeko 1,5 aparkaleku, espazio pribatu nahiz publikoan ordenaturik.

Agiria aztertutik

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzako, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea aipaturiko agirian jasotzen diren aldaketak Hirigintza batzordeak egindako bileretako erabakiak jasotzen dituelako.

ZORTZIGARRENA:

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOAN IZAN DEZAKEEN ERAGINAREN EBALUAZIOAREN ONARPENA

Apirilaren 7ko 2/2006 legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, zazpigarren artikuluan, Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez, izan lezaketen inpaktua ebaluatzea, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten diren neurriak proposatzea agintzen du.

Hirigintza batzordearekin bildu ondoren, Ibarra Euskara eta Hezkuntzako teknikariak eta udal arkitektoak, Ibarra hiri antolamendurekin eta euskararen eragin sozio lingistikoarekin zerikusia duten egiturazko elementuak zehaztu dituzte eta ondorioak atera.

Horiek 2017ko otsaileko data duen ELEA agirian jaso dira.

Agiria aztertutik

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzako, aho-batez, 11 aldeko botoekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Aldeko ebaluazioa egitea eta proposatzen diren neurriak hartzea

BEDERATZIGARRENA:

IBARRAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN PARTE-HARTZE PROZESUAREN INGURUKO ERABAKIAK

2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko legearen 108 art.ak ezarritakoari jarraiki, Ibarra Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren prozesuan herritarrek eta entitateek eskubidea izateko beharrezko da herritarren parte-hartzea. Horreterako programa onartu zuen Udaltzako 2014ko irailaren 18ko bilkuran.

Orain arte egindako prozesuan herritarren parte-hartze programaren helburuak bete dira eta horiek Tokiko Agenda 21aren berrikuste prozesuarekin bateratzeak emaitza eraginkorrek eta positiboak eman ditu.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bi planen koordinazioa ENEA talde erredaktoreari esker egin da, bereziki, herriaren egoeraren diagnostikoa eta proposatzen ziren aukeren azterketa eta ebaluaketa egiterakoan. 2015eko martxoko agirian Herritarren parte-hartze prozesuaren emaitzak jasotzen dira ; 2014. urtean zehar, apiriletik abendura bitartean, egindako 7 bileren emaitzak izan dira bereziki kontuan hartu direnak erabakiak hartzerakoan.

Bilera haietan guztira 102 bizilagunek hartu zuten parte, horietatik %40 emakumezkoak eta %60 gizonezkoak izanik.

Ondorengo fasean, kontrol eta jarraipenerako fasea, hasieran diseinaturiko programa aldatzea erabaki zuen udalak. Hasierako onarpenerako agiria onartu ondoren herritar guztiei zabalduko bi saio informatibo egin ziren. Deialdi haietara bereziki aurreko fasean parte hartu zuten herritarrei egin zitzaizkien deialdia. Hala ere, saio haietara gerturatutako herritar kopurua ez zen handia izan.

Bestetik, Enea taldeak hiru erronka nagusi zehaztu zituen bi prozesu estrategikoetan herritarren parte-hartzearen jarraipena egiteko eta 8 urterako herrian garatzeko ; modu horretan, plan orokorraren eta TA21aren garapenaren jarraipena egiteko plan egokia egin zen.

Erronkak:

Lehen erronka: ZELAI ERREKA HERRIAREN ARDATZ

Udalaren asmoa Zelai errekarari bere garrantzia ematea da eta bere balioa ezagutzera ematea, zaindu eta berau baliatzea , horrela erreka herriaren ardatz bihurtuz.

Gaur egun, errekaaren egoera moderatua da, bere egoera hidromorfologikoarengatik, batez ere. HAPOn hitzartutako jarraibide berriei dagokienez, hiri barruko gunea Zelai errekarara irekitzea dago, kalitatezko eremu libreak sortuz. Zehazki hauxe planteatzen da: erreka ondoan, eremu librean jarraitua Errekondone, Ezeizanea eremuetan zehar, eta Ibaitegi, San Bartolome plaza ondoan. TA21ari dagokionez, Zelai errekararekin lotutako hainbat ekintza azaltzen dira, hala nola, bainurako gunea sortzea, egiten diren isurien gaineko ekintzak, ertzak birnaturalizatzeko ekintzak...

Parte- hartze prozesuaren jarraipena: Zelai erreka inguruan egingo diren gunen librean diseinua herritarren parte-hartzearekin egitea proposatzen da. Gainera, gunen libre eta parkeetan hurrek zeresan handia daukatenez, parte-hartzea ikastetxearekin lantzea ere egoki ikusten da, ikasleek gunen libre hauen diseinuan parte hartuz.

Bigarren erronka: IBARRAN, TOKIAN TOKIKOA

Egun merkataritza ihesa %66,9koa da. Erronkaren helburua tokiko produktuak balioan jartzea da eta bide batez, bertako merkataritza sustatzea.

Bestalde, ikusi da Ibarra nahiz eta turismoaren aldetik erakargarria izan daitekeen, bertan ez dagoela inolako ostaturik.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HAPOn hitzartutako jarraibideen artean, udalerriko zenbait baratz mantentzea dago eta Izaskun auzoan egoki ikusten da estalitako guneren bat egitea auzo izaera bultzatzeko. TA21ean ere hainbat ekintza daude erronka hau bete ahal izateko, batez ere, enplegu aukera berriak aztertzearekin, eta bertako produktuen kontsumoa bultzatzeko ekimenekin lotuta.

Parte hartze prozesuaren jarraipena: Lur eta ustiaketa jabe pribatuekin lantalde bat sortzea proposatzen da, lehen sektorearen diagnostiko bat egin eta hortik ateratako ondorioak aintzat hartuz, proiektu zehatzak definitzeko. Horrela, ondorengoari erantzun ahal izango zaio:

- Luzera begira Ibarra Piparraren biziraupena bermatzea.
- Udalerriko lehen sektorea sustatzea, belaunaldi-erreleboa bermatuko duten aukeren hausnarketan arreta jarritz.

Hirugarren erronka: IBARRA BIZIA ETA BIZIGARRIA

Ibarra ez dago bizitoki zoruen eskaintzarik eta honek Ibarra gazteak ondoko herrietara joatea ekartzen du. Horrez gain, zarata neurketek gomendatutako zarata balioak gainditzen dituzte eta oso kezagarritzat jotzen diren balioetatik gertu daude. Eta bukatzeko, Ibarra langabezia tasa Tolosaldea eta Gipuzkoakoa baino altuagoa da.

Horren aurrean, HAPOk alde batetik, erabaki du soilik beha- beharrezkoak diren hiri hutsuneak antolatzea, eta lehenetsuna emango dio eraikitako guneen biziberritzeari. Gainera, landa zorua errespetatuko da, eta horretarako baserriaren balizko erabilerak arautuko dira, baita eraikuntza bakoitzeko etxebizitza kopurua ere; Bestetik, zarata maila jaisteko asmotan, mugikortasun baldintzak hobetzea ahalbidetuko du, batez ere, oinezko eta txirrindularienak; Eta bukatzeko, merkataritza eta zerbitzu arloko jarduera berriak sortzea ahalbidetuko du, bai finkaturiko zoruari bai eremu berrietan.

TA21ari dagokionez ere, hainbat ekintza biltzen dira aipatutako hiru alderdi horiei erantzuna emateko, hala nola, egoera kaxkarrean dauden eraikinak birgaitzea, oinezko eta txirrindularien mugikortasun azpiegiturak garatzea eta establezimendu berri eta berritzaileak laguntzea.

Parte-hartze prozesuaren jarraipena: Zarata maila jaisteko asmotan, Euskal Herria kaleko ibilgailuentzako, eta batez ere, ibilgailu astunentzako, beste alternatiba bat bilatu behar da; Horretarako, lurralde antolamenduak aurreikusitako trazadura baliogarria izan daiteke. Hala ere, proposamen hori aztertu egin beharko litzake, bere abantaila eta desabantailak ikusiz, beharrezkoa bada moldaketak eginez eta hiri barruko gunea berrantolatuz. Proposamenaren azterketa herritarrekin lantzea proposatzen da, baita trazadura berri honek eragingo dituen lursailen jabegoekin ere.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Parte-hartze prozesuan herritarren batzorde kontsultiboa ez egitea; eta, jarraipena egin ahal izateko, Tokiko Agenda 21arekin batera identifikaturiko erronkak lantzerakoan, herritarren parte-hartzea bultzatzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HAMARGARRENA:

IBARRAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA

AURREKARIAK

Ibarrako Hiri Antolamenduaren Arau Subsidiarioak behin betiko onartu zituen Foru Aldundiak, 1991eko otsailaren 5ean emaniko ebazpen bidez.

2004ko urtarrilaren 14ko osoko bilkurak onartu zen hirigintza planeamenduaren arau subsidiarioek berrikusteko lanen kontratazioa.

Aurrerapena eginda, 2005eko martxoaren 2ko osoko bilkuran erabaki zen jendaurrean jartzea Ibarrako planeamenduko arau subsidiarioen Berrikuspen agiria eta Ingurumen eraginari buruzko Azterlana (2005eko martxoaren 9ko GAO, 46 zk) eta bi hilabetez egon zen jendaurrean alegazioak aurkez zituzten interesdunek.

2005eko martxoaren 4an Ibarrako udalak eskatu zion Ingurumen eraginari buruzko azterlana Gipuzkoako foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako departamentuari.

2005eko abenduaren 26an, beharrezko kontsultak egin ondoren, erantzuna eman zioten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Ingurumen eraginaren Prozedurari buruzko kontsultari.

2005eko abenduaren 29an Ibarrako Planeamenduko Arau Subsidiarioen gaineko Ingurumen eraginari buruzko txostena jaso zen Gipuzkoako foru Aldunditik.

Hasierako onarpenerako agiria eginda, udalbatzaren aldetik akordiorik ez zegoenez bertan behera gelditu zen tramitazioa.

Berriz ere, Ibarrako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikusketako prozesuari ekin zitzaion 2008 urtean. Legeria aldatu zenez, aurreko prozesu guztia egokitu behar zitzaion legeri berriari.

2009ko azaroaren 24an Udalbatzak erabaki zuen Ibarrako planeamenduaren Arau Subsidiarioen berrikustearren helburuak jasotzen dituen laburpen agiria berrestea; ingurumen organoari aurretiazko kontsulta egitea txosten berri bat egin behar den edo 2009ko abenduaren 29koaren osagarri bat jakiteko eta, parte hartze programa onartzea.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2010eko irailean, parte hartze programaren barruan, udalerriko eragile eta erakundeekin bilera egin zen eta jendeari irekitako azalpen bilerak ere bai planaren zirriborroa azaltzeko. Ibarra bizi biztanleek 22 kontsulta egin zituzten.

2010eko urriaren 7an Ingurumen Eraginari buruzko Ebaluazio Bateratua egiteko fasearen eta hasierako onarpenaren agiriaren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Jasangarrirako departamentuari eskatu zitzaion ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txostena egin zezan.

2010eko abenduaren 21eko osoko ezohiko bilkurak erabaki zuen Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrari Hasierako Onarpena ematea, eta bi urtez bertan behera uztea era guztietako onarpen, baimen edo hirigintzako lizentzia egungo Planarekin eta Arau Subsidiarioekin bat ez bazetozen.

2011ko martxoan, hasierako onarpena eman ondoren, Udaletxean sarrera eman zitzaion ingurumen organoaren Txosten Osagarriari, horrela erantzunez 2010eko urriaren 7an eskaturikoari. Helburu hau du agiri horrek: 2005eko abenduaren 26ko aurretiazko txostena eguneratzea, indarrean dauden ingurumen babesari buruzko irizpide eta helburuak txertatuz; ingurumen organoak aldaketen inguruan duen iritzia ematea, eta ingurumen eraginari buruzko aurretiazko azterlanean jasotako zehaztapenak egiaztatzea.

Jendaurrean hilabete egon ondoren 33 alegazio aurkeztu ziren.

2011ko maiatzaren 17an eginiko osoko bilkuran, Udalbatzak behin-behineko onarpena eman zion Ibarra bizi biztanleek Plan Orokorrari. Kontuan izan ziren behin-behineko onarpenean garrantzi gutxi aldaketa batzuk.

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren batzordeak -2011ko urriaren 20ko 4/2001 batzarra-erabaki zuen ALDEKO TXOSTENA egitea Lurralde Antolamendu, Lurzoru eta Hirigintza, Landa, Itsas eta Ur Garapenen alderdiei buruz, zenbait alderdi sartzeko baldintzarekin.

2011ko azaroaren 10ean, ingurumen batzordeak ingurumenari buruzko behin betiko ALDEKO txostena egin zuen (ALDEKO IDIA) alderdi hauei buruz: jarduketak, araudia eta edukiak. Agirian alderdi batzuk txertatu behar ziren amaierako tramiterako.

Udalbatzak, txostenak jaso ondoren 2012ko apirilaren 25ean eginiko bilkuran onartu zuen etetea planaren tramitazioa. Helburua zen plana berrikustea kontuan izanda azken datuak eta egungo egoera sozio ekonomikoa nahiz hirigintzako, horrela, IDIAN jasotako baldintzetara egokitu ahal izateko.

Udalbatzak, 2012ko apirilaren 25ean erabaki zuen HAPOn onarpen prozedura etetea.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalbatzak, 2013ko abenduaren 26an eginiko bilkuran erabaki zuen berriz ekitea Ibarra HAPo egiteko lanei eta tramitazioari. Helburu horrekin, laguntza, aholkularitza eta erredakzio lanak kontratatzeari ekin zitzaion eta Santi Peñalbak, Manu Arruabarrenak eta Mikel Iriondok osaturiko talde erredaktorea esleitu zen.

2014ko ekainaren 13an sinaturiko kontratuan argi zehaztu zen helburua: Ibarra Plan Orokorren berrikuste lanei, 2004 urtean hasitakoei, jarraipena ematea.

2014ko irailaren 18an udalbatzak onartu zuen Ibarra hiri antolamenduaren plan orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko parte hartze programa, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta hirigintzari buruzko legearen 108 art.ari jarraiki. Plan horrek lotu egiten ditu Tokiko agenda 21eko parte hartze programa eta HAPOrena, bere diagnostiko sozio urbanistikoaren fasean.

2014ko urriaren 30eko bilkuran, Udalbatzak udalerraren diagnostiko eguneratua onartu zuen eta jendaurrean jarri zuen 45 egunez.

Jendurre aldia amaituta, 2015eko martxoaren 31n onartu zituzten kontuan izan beharreko jarraibideak HAPOren agiria eta ingurumen eraginari buruzko azterlana egiten jarraitzeko. Ondoren, hasierako onarpena eman behar zitzaion eta jendaurrean jarri.

Berriz ere, Eusko Jaurlaritzaren barne sailari eska zitzaizkion txostenak plana egitean kontuan izan beharreko arriskuei buruz eta Gipuzkoako ur Kontsortzioari baliabide hidriko nahikoa bazegoen jakiteko. Jaso ziren erantzun egokiak.

Hasierako onarpena eman aurretik ingurumen organoari bidali zitzaion testua, horrek jakin zezan planean erantzuna eman zaiola IDIAN eskatutakoari (2011ko azaroaren 10eko behin betiko Ingurumen txostena).

2016ko maiatzaren 26an Udalbatzak hasierako onarpena eman zion HAPOari eta jasangarritasun txostenari, eta baldintza batzuk txertatu zituen.

Onarpen horren eta 45 eguneko jendurre aldiaren iragarkia prentsan eman zen (Garan eta Berrian ekainaren 10ean eta Diario Vascon ekainaren 14an, eta GAO 2016ko ekainaren 15ean, 113 zk.)

Parte-hartze prozesuaren programaren arabera, udalak Plan Orokorren proposamena zabaldu zuen bi hitzaldi informatiboren eta eztabaida baten bidez (ekainak 28 eta 30).

Jendaurrean 45 egunez egon ondoren 14 alegazio aurkeztu ziren.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hasierako onarpenaren ondoren, beste administrazioei eskatu zitzaizkien, beren eskumenera arloan, txostenak egin zitzaten. Bost idatzi jaso ziren eta sektoreko lau txosten. Txosten horiek gai hauen ingurukoak dira: telekomunikazioak, errepideak, ondare kulturala eta zortasun aeronautikoak.

Ez dira jaso URA eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren derrigorrezko txostenak. Halere, harremanetan izan dira Udala eta URA eta bilera bat egin zuten 2016ko azaroaren 2an Plan Orokorri buruz. Bilera horretan URAk bere iritzia eman zion udalari proiektuari buruz.

2016ko abuztuaren 4an, Ingurumen organoaren ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txostena jaso zen, Ibarra HAPOn 2016ko txostenari buruzkoa, hain zuzen ere.

2017ko martxoaren 17an, otsaileko "Jendurreko tramiteari buruzko txostena" aurkeztu zen, talde erredaktoreak eginiko hausnarketa baten ondorioa, udalak emandako jarraibideak betez.

Horrekin batera, udal zerbitzu teknikoek Ibarra Hiri Antolamenduko Plan Orokorriaren Arau Orokorri eginiko doikuntzak egin ditu eta "Hizkuntz Ebaluazioaren azterlana. 2016ko otsaila" izeneko agiria.

Udal arkitektoak aldeko txostena egin du Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean txertatu beharreko aldaketan inguruko agiriei buruz, 2017ko otsailekoak. Agiri horiek nahikoa jo ditu baina baztertu gabe, plana behin betiko onartzen denean dagokion Testu Bategina egitea. Horregatik hirigintza batzordeari eskatzen dio aldeko irizpena ematea Hiri antolamenduko Plan Orokorri honen behin-behineko onarpenari.

2017ko martxoaren 22ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udaltzako, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Behin-behineko onarpena ematea Ibarra Hiri Antolamenduko Plan Orokorriari, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 legearen 90.6 art.ari jarraiki.

Behin-behineko onarpenerako kontuan izan dira 2016ko otsaileko agiriak eta aldaketak txertatzen dituzten eta goian adierazi diren 2017ko otsaileko agiriak. Txertatu diren aldaketek ez dakarte oinarriko aldaketarik hasierako egiturazko antolamenduan.

BIGARRENA: Agiria bidaltzea ingurumen organoari, horrek ingurumen eraginari buruzko behin betiko txostena egin dezan, eta baita Euskal Herriko Hirigintza batzordeari.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

HAMAİKAGARRENA:

IBARRAN ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA ARAUTUKO DUEN UDAL ORDENANTZAREN ONARPENEA

2017ko urtarrilaren 12an Udalbatzak hiri hondakinen bilketa Sistema aldatu zuen Ibarra biztanleen eguneroko beharretara egokitzeko. Egun, edukiontzi bidezko bilketa sistema onartu da eta hondakin organikoa eta errefusa txip bidezko sistemarekin atera behar da.

Ondorioz, Ibarra Udalak etxe eta merkataritzako hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautuko duen Udal Ordenantza egitea beharrezko ikusten du.

2017ko martxoaren 14ko Ingurumen, Nekazaritza eta Merkataritza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Haserako onarpena ematea Ibarra Etxeko eta Merkataritzako hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautuko duen Udal Ordenantzari.

BIGARRENGOA: Ibarra Etxeko eta Merkataritzako hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautuko dituen udal-ordenantzari onarpena jendaurreko tramitean jartzea, 30 eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jartzen den biharamunetik kontaktzen hasita, interesatuek egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean dagoen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ezean, erabaki hau behin betiko bihurtuko da.

HAMABIGARRENA:

MOZIOA: SARE-K IBARRAKO UDALBATZARI AURKEZTEN DION MOZIOA LARRIKI GAIXORIK DAUDEN PRESOK ASKATU! MANU ETXERA! LEMAPEAN

MOZIOA

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Gibelaren inguruan dagoen Porta zainean duen kabernoma (tumorazio antzeko zerbait, baina ez da txarra) da Manu Azkaratek duen gaixotasuna. Gaixotasun hori dutenek odolaren zirkulazioan arazoak izaten dituzte. Odolak zailtasunak izaten ditu bihotzera bidean, kabernomak oztopo garrantzitsu baitira zeregin horretan. Arazoa areagotu egiten da, gainera, sabeletik behera dauden zainen kasuan: odolak presio izugarria duenez, hipertentsioa sortzen da.

Oztopo horiek saihesteko, odolak beste zain batzuk erabiltzen ditu bihotzera iristeko. Bidean, barizeak sortzen dira eta hemorragiak izateko arriskua dago. Hala ere, arazorik larriena da gaixoak biriketean enboliak izateko duen arriskua, izan ere, bat-bateko heriotza eragin dezake enboliak. Gaixotasunaren konponbiderik errazena kabernoma hori kentzea da. Manuren kasuan, ordea, ezinezkoa da. Batetik, oso toki txarrean dago kokatuta tumorea. Bestetik, Porta zaina oso zain garrantzitsua da, beraz, horren lana egingo lukeen zubi bat jartzea ezinezkoa da.

1992an, espetxetik atera ondoren, konponbide gisa filtro bat jarri zitzaion Porta zainean eta sabeleko zainetatik bihotzeraino zubia egin zioten. Hala ere, arriskua saihetsezina da.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gogorarazten digun bezala, osasunerako eskubidea eta osasun-asistentzia duin bat izateko eskubidea pertsona guztien oinarrizko eskubideak dira. Beraz, jende guztiak osasun-asistentzia egoki baterako sarbidea izan behar du, eta tratu duin, justu eta humanoa jaso beharko du.

Gaixo dauden presoak, pertsonak izateagatik soilik, beraien osasun-eskubidea aitortua eta errespetatua izan behar dute, pertsona horiek tratu duin eta humanoa jasotzeko eta osasun-asistentzia egokia izateko eskubidea dute, nahiz eta preso egon.

Larriki gaixorik dauden presoek kasuan, Manuren kasua tarteko, beraien bizia arriskuan dago, oso larri daude eta premiazkoa dute askatasuna, ondorio larriagorik gerta ez dadin. Kartzelako berezko baldintzak oso gogorrak dira eta barruan ezin dute tratamendu egokirik jaso; horregatik, lehenbailehen etxean behar dute.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako bitzitza-eskubidea urratzen du Espainiako eta Frantziako kartzela-politikak; ez da zilegi gaixotasun larriak dituzten presoak kartzelan edukitzea.

Giza eskubideak ideologia guztien gainetik daude, denoi dagozkigu, baita kartzelan daudenei ere. Eta horietan defenditzen jarraituko dugu.

Horregatik guztiagatik, mozio hau onartzearekin batera, ordezkatzeko dugun udal honen izenean, gai honen inguruan dugun kezka eta desadostasuna azaltzearekin batera, larriki gaixo dauden euskal presoek berehalako askatasuna eskatuko diogu Espainiako Espetxe Zaintzako Erakundeari.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Sare-k aurkezturiko mozioa, Larriki gaixorik dauden presoak askatu! Manu Etxera! Lemapean

BIGARRENA: Ibarra Udalak, gai honen inguruan dugun kezka eta desadostasuna azaltzearekin batera, larriki gaixo dauden euskal presoen berehalako askatasuna eskatuko dio Espainiako Espetxe Zaintzako Erakundeari.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea Espainiako Espetxe Zaintzako Erakundeari.

HAMAHIRUGARRENA:

MOZIOA: ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREAK IBARRAKO UDALBATZARI AURKEZTEN DION MOZIOA MARTXOAREN 21, ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIEN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA LEMAPEAN

MOZIOA

Nazio Batuen Batzar Nagusiak martxoaren 21ean ospatzen du Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta estatu-kideei eskatzen die ekintza-planak abiarazi ditzaten, arrazakeria eta apartheidak ezabatuzko. UNESCOko zuzendari nagusiak 2017an zabalduko mezuek gogorarazten digu *arrazakeriak gizabanakoak eta gizartea hondatzen dituen pozoia dela, ezberdintasunak iraunarazten dituela, eta haserrea, amorrua eta indarkeria bultzatzen dituela. Krisi ekonomikoa eta ziurgabetasun soziala ezaugarri duten garaiotan, erraza da "bestea" erruduntzat hartzea, eta arraza-diskriminazioa tentazio arriskutsua bihurtzen da, zeina gorrotoaren artisauek ondo aprobetxatzen dakiten.*

Gaur egungo arrazakeria-, arraza-diskriminazio, xenofobia- eta antzeko tolerantzia-ezeko ereduaren NBEko errelatore bereziak txostena egin zuen 2013an Espainiaren inguruan. Bertan, gogor kritikatu zuen arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako legeria, eta baietzi zuen migratzaile, ijito eta errefuxiatuen eskubideak urratzen zirela. Zehazki, adierazi zuen krisi ekonomikoa atzerakada ekarri zuela arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan; besteak beste, ildo horretan lan egiten duten erakundearen laguntza finantzarioaren eza.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Europako Batzordea (ECRI) Espainiara etorri da 2017ko urtarrilean, bosgarren txostena egiteko asmoz. Laugarren txostenean (2011) Nazio Batuetako errelatoreak agertutakoen antzeko kezka jaso ziren.

Martxoaren 21ak gogorarazten digu edonolako arraza-diskriminazioa ezabatu beharra dagoela; eta bereziki garrantzitsua gertatzen da, gizarte guztietan oraindik jarraitzen eta irauten duten xenofobia-mota sotilez gain, beste xenofobia-adierazpen kezkarriak azaleratu direlako, gobernuek, gizarte-erakundeek, alderdi politikoek eta beste hainbat eragilek sustatuta. Horiek xenofobia-eredu instituzionalizatuak bihurtu daitezke eta, ondorioz, diskriminazioa ekarri dezakete. Halako jarrerak, behin martxan, oso zailak dira gelditzen. Jakina, Europatik iristen diren oihartzun larrigarri ugariak direla-eta, egoerarik txarrena aurreikusten dugu, eta horixe barneratzen dugu, bai eta Europaren aukera ere.

Mugimendu xenofoboak gizartean zabaldu ohi dira, inpunitate-eremuak zein onespenguneak sortuz. Egoera horiek sendotu eta finkatu egiten dira liderrak proposatzen dituztenenean, gizartean haien parekorik ez dagoela baieztatzen dutelarik. Hala, pentsamolde ideologikoak askatzen dituzte, zeinek, lehentasun nazionalaren izenean, tartea gordetzen eta indartzen duten biztanleriak duen immigranteen behar materialaren eta etorkinek harrera-gizarteetan jasaten duten gaitzespenaren artean. Bada logika hori -lagungarria eta okerra dena aldi berean- laburtzen duen lema bat: ***Needed, but not Wellcome!***

IBARRAKO UDALA, ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarearen parte izanik, aditzera eman nahi dugu **konpromisoa hartu dugula dauden prozedura eta mekanismo guztiak sustatu eta abian jartzeko, xenofobia- eta diskriminazio-ereduak -sotilak eta agerikoak, ala ez hainbeste- sustatu nahi dituzten proposamen politiko eta diskurtsoak ahultzeko.** Adierazpen eta diskurtso horiek ez dira gure izenean egingo, ez eta erakundeen izenean ere.

Ikusirik politika xenofoboek zenbateraino egin duten aurrera Europan eta mundu-mailan, berretsi nahi dugu gure konpromisoa; hots, inpunitate-dinamikak galaraztearena baieztatu demokratiko eta irmo baten bidez, ez daitezela gobernura iritsi. Giza eskubideek lehentasuna

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

dute, eta eskuratu ditugun gobernu-moldeek barne hartu behar dituzte; horretarako, beharrezkoa da erakundeek irmoki uko egin diezaietela xenofobiari eta arrazakeriari.

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak ezinbestekotzat jotzen du:

- Arrazakeria eta xenofobia prebenitu eta ezabatzeko politika publikoak nahiz gizarte-estrategiak bultzatzea, ikuspegi deskolonizatzaile batetik eta elkargunea bilatuz.
- Immigranteek egindako ekarpenak azpimarratzea, eta Euskadiko biztanle guztien aukera berdintasuna bermatzea, baita sustapen sozial, ekonomiko eta kulturalerako aukerak indartzea ere.
- Kulturartekotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako jarrerak sustatzen dituzten hedapen- eta sentsibilizazio-ekintza nahiz estrategiak aktibatzea, zurrumurruen aurkako sareak sendotuta eta hezkuntzari arreta berezia eskainita, formalari zein ez-formalari.
- Etika publikoa sustatzea, zeinak herritarrak kontzientziatuko dituen eta edozein arrazakeria- edo xenofobia-aztarna ezabatuko duen.
- Alderdi politiko guztiek kode etikoa bereganatu dezatela gomendatzea, konpromisoa hartu dezaten demagogia eta populismorik ez egiteko immigranteen inguruan; bai eta mekanismoak ezarri ditzatela ere, konpromiso hori betetzen ez dutenak zehatzeko.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea Zurrumurruen Aurkako Sareak aurkezturiko mozioa Martxoaren 21, arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako nazioarteko eguna lemapean.

HAMALAU GARRENA:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EUSKAL FONDOAK IBARRAKO UDALBATZARI AURKEZTEN DION ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EUROPAKO JUSTIZI AUZITEGIAK MENDEBALDEKO SAHARARI BURUZ

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:

Adierazpen instituzionala, Europako Justizia Auzitegiak Mendebaldeko Saharari buruz emandako epaia betetzearen gainean.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2016ko abenduaren 21ean, Europako Justizia Auzitegiak erabaki zuen ezen Mendebaldeko Sahara ez dela Marokoko Erresumako zati, eta horrek esan nahi du Europar Batasunaren eta Marokoren arteko ezein merkataritza-akordio ezin dela aplikatu Mendebaldeko Saharan, eta ezin dela merkataritza jarduerarik ezarri, ezta Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak esportatu ere, saharar herriaren onespenerik gabe.

Epai hori nahitaez bete behar dute Europako eta Estatuako agintariek; horregatik, beren betebeharra da hori errespetatzea eta, gainera, herritarrei ezagutaraztea, behar bezala aplikatze aldera.

Halaber, NBEko Segurtasun Kontseiluak 2016ko apirilean onetsitako 2285 ebazpenaren arabera, irtenbide politiko bat lortzea eta Magrebeko estatuaren arteko kooperazioa hobetzea lagungarriak izango dira eskualdeko egonkortasunerako eta segurtasunerako.

Aurretik egindako adierazpenetan gogoratu izanenez, Espainiak, 1976ko otsailaren 26an, alde egin zuen Mendebaldeko Saharako lurraldetik, bukatu gabe utzirik deskolonizazio-prozesua, NBEren esparruan abiarazita zegoena; hortaz, Espainiako Estatuak erantzukizun historiko, juridiko eta morala dauka saharar herriarekiko.

Udalbatzak, aho-batez, 11 aldeko botorekin (6 BILDU eta 5 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Ibarra Udalak dei egiten du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko abenduaren 21eko epaia errespetatu eta betetzera, zeinen arabera Marokoren eta Europar Batasunaren arteko asoziazio- eta liberalizazio-akordioak ez diren Mendebaldeko Saharako lurraldean aplikatzen.

BIGARRENGOA: Ibarra Udalak Adierazten du kezkatuta dagoela Europako konpainiek Mendebaldeko Saharako baliabide naturalak ustiatzen dituztelako, zeren gai hori nazioarteko eta Europako zuzenbidearekin kontraesanean baitago; eta berriz ere, gogora dakar legez kanpoko delako saharar herriaren onespenerik gabe Mendebaldeko Sahararekin egindako merkataritza-jarduera oro.

HIRUGARRENGOA: Ibarra Udalak dei egiten die Europako, Espainiako eta Euskadiko konpainiei nazioarteko eta Europako zuzenbideari jarraiki jarduteko, Mendebaldeko Sahararen marokoar okupazioa iraunaraztea eta horko baliabide naturalen ustiaketa faboratu ditzaketen



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

jarduerak utziz (esaterako, hainbat alorretako jarduerak: arrantza, nekazaritza, fosfato- eta hare-erazketa, edo energia berriztagarria), eta agintari guztiak bultzatzen ditu indarrean dagoen legeria ezartzera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren arestiko epaiari jarraikiz.

LAUGARRENGOA: Ibarako Udalak bat egiten du euskal gizartearen elkartasun korrontearekin, zeinak urteak daramatzen exijitzen irtenbide politiko bat, bidezkoa, iraunkorra eta alde bientzat onargarria, autodeterminazio-erreferendum baten bidez Mendebaldeko Saharako gatazkari bukaera emango diona.

ERANSKINA

IBARRAN ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA ARAUTUKO DUEN UDAL ORDENANTZA

ARRAZOIAK

Ibarako Udaltzako 1997ko irailaren 11n Tolosaldeko Mankomunitateko kide izateko erabakia onartu zuen. Mankomunitatearen helburu nagusia hiri hondakin solidoak tratatzeko eta biltegitratzeko zerbitzuaren kudeaketa, antolaketa eta prestazioa mankomunaturiko herrietan egitea da. Horregatik orain arte Ibarako Udalak ez du hiri hondakinen bilketa arautzen duen ordenantza propiorik eta Tolosaldeko Mankomunitateko Ordenantza bidez arautu du zerbitzua.

Hondakinak bildu eta tratatzeko eskuduntza Ibarako Udalak izanik, Tolosaldeko Mankomunitateari esleitzen dio biltegitratzea eta kudeaketa nahiz eta araudia sortu eta eskuduntza propioa Udalak izaten jarraitzen duen. Eskuduntza hori dela eta, Ibarako Udalak hondakinen bilketa sistema propioa nolakoa izango den erabaki dezake beste herri mankomunatuaren sistemak desberdinak izan arren. Sistema erabakita, Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuekin bat egiten du eta horregatik Ordenantza honetan Ibarako Udala eta Tolosaldeko Mankomunitatea izendatzen dira elkarlanean helburu berdina lortzeko pausuak ematen ditugularik.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2017ko urtarrilaren 12an buruturiko Udalbatzan, Ibarra Udalak, hiri hondakinen bilketa sistema aldatu zuen Ibarra biztanleen eguneroko beharretara egokitzeko. Egun, edukiontzi bidezko bilketa sistema onartu da eta hondakin organikoa eta errefusa txip bidezko sistemarekin atera beharko da.

Hondakinen eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak aldi baterako bigarren xedapenean jasotzen duena kontutan hartuz, legeak herritarrok hondakin gutxiago sortzeko (sortutakoa berrerabiltzeko eta gaika biltzeko derrigortasuna) beharra ezarri duela kontutan hartuz eta errefusa gutxiago sortzeko beharra dagoenez, Ibarra Udalak Etxeko eta Merkataritzako hondakinak bildu eta tratatzeko Ordenantza propioa izatea beharrezkoa ikusten du.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Zerbitzuen objektua eta eremua

1.1. Etxeko eta merkataritzako hondakin ez-arriskutsuak

Ordenantza honen xedea da Ibarra sortzen diren etxeko eta merkataritzako hondakin ez-arriskutsuak biltzeko zerbitzuak Ibarra Udalak zein baldintzatan emango dituen eta erabil-tzaileak nola erabili behar dituen arautzea.

1.2. Industria hondakin ez arriskutsuak

Ordenantza hau ez da aplikatuko Ibarra udalerrian sortutako industria-hondakin ez-arriskutsuen kudeaketan. Hondakin horien bilketa eta tratamendua "Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalen eremuan dauden industria eta enpresa guneeetan eta beste jarduera batzuetan hondakinak biltzeko zerbitzua arautuko duen ordenantzaren" bidez dago araututa.

Ordenantza hori behin betiko onartu eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2010eko azaroaren 15ean.

1.3. Aplikazio eremua

Zerbitzu horiek jasoko dituzte aipatutako zerbitzuen onura edo eragina duten pertsona fisiko nahiz juridiko guztiek, baldin eta Ibarra udalerrian helbidea badute.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Salbuespenez aldameneko herrietan helbidea duten kasuren batean gertutasun edo kudeaketa arrazoiengatik bi udalerriek horrela erabakitzen badute Ibarra Udalak arautuko du.

Erabiltzaileek indarrean dauden xedapenen eta ordenantza honen arabera erabiliko dituzte zerbitzu horiek.

2. artikulua. Aplika daitekeen araudia

Ordenantza honen araudiak Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea (2011ko uztailaren 29an, BOEren 181. zenbakian argitaratua) eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak ditu oinarri.

3. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen arabera, honako kontzeptu hauen definizioa hauxe izango da:

- Hondakin: Bere edukitzaileak utzitako edo uzteko asmoa edo obligazioa duen edozein substantzia edo objektu.
- Etxeko hondakinak: Etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortzen diren hondakinak. Halaber, etxeko hondakinak dira zerbitzu edo industrietan sortu eta aurrekoekin pareka daitezkeen hondakinak. Eta baita etxeetan sortzen diren zenbait hondakin ere, hala nola, tresna elektriko eta elektronikoak, arropa, pilak, metagailuak, altzariak eta lanabesak, eta etxeko eraikuntza eta konponketarako obra txikiek sortutako obra-hondakinak.
- Etxeko hondakinak izango dira bide publiko, berdegune, aisigune eta hondartzak garbitzen direnean sortzen diren hondakinak, bai eta etxeko animalia hilak eta kalean utzitako ibilgailuak ere.
- Merkataritza-hondakinak: Merkataritzaren beraren jarduerak, handizkako zein txikizkako merkataritza-jarduerak, jatetxe eta tabernetako zerbitzuak, bulego eta azoketako jarduerak, bai eta zerbitzuen sektoreko gainerako jarduerak sortutako hondakinak.
- Industria-hondakinak: Industria-jarduerako fabrikazio, eraldaketa, erabilera, kontsumo, garbiketa edo mantentze-lanetako prozesuetan sortutako hondakinak, azaroaren 15eko 34/2007 Legean araututako atmosferarako isurketak alde batera utzita.
- Bilketa: Hondakinak biltzea, tratamendu-instalazio batera garraiatzeko egiten den hasierako sailkapen eta biltegitratzea barne.
- Gaikako bilketa: Hondakin-fluxu bat bereizita biltzea, hondakin mota eta izaeraren arabera, hondakin horren berriazko tratamendua errazteko asmoz.
- Berrerabiltzea: Hondakinak ez diren produktuak edo produktuen osagaiak sortu zirenean zuten xede bererako berriz erabiliz egiten den edozein operazio.
- Birziklatzea: Hondakin-materialak berriz produktu, material edo substantzia bihurtzen dituen baliotze-operazio oro, jatorrizko xedea izan edo beste edozein xedekin egiten bada ere. Gai organikoaren eraldaketa ere barne hartzen du, baina ez baliotze

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

energetikoa, ez eta erregai gisa edo betelanetarako material gisa erabiliko diren material bihurtzeko prozesuak.

4. artikulua. Hondakinak uztea

Debekatuta dago hondakinak kontrolik gabe utzi, bota edo ezabatzea, bai eta horien kudeaketa zailduko duen edozein nahasketa egitea ere.

4.1 Hondakin organikoa eta errefusa

Hondakin organikoaren eta errefusaren kasuan, erabiltzaileak behartuta daude Ibarra Udalak finkatutako egutegi, ordutegi eta baldintzen arabera uztera.

4.2 Ontziak eta kartoia

Ontzien eta kartoen kasuan edukiontziak irekiak izango dira, eta edozein unetan utzi ahal izango dira dagokien lekuan.

5. artikulua. Zerbitzua emateagatiko tasa

Ibarra Udalak, Tolosaldeko Mankomunitateko kide bezala, Mankomunitatea osatzen duten udalek urtero hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua emateari dagokion tasa ezarriko du. Horretarako, ahal den neurrian, proportzionaltasun printzipioa aplikatuko du sortutako hondakin kopuruaren eta ordaindu beharreko kopuruaren artean eta baita tarifaren diskriminazio positiboaren printzipioa, hau da, tarifa murriztea bultzatuko da, berrerabiltzeak, birziklatzeak eta konpostatzeak azken tratamenduaren aurrean lortutako mailaren arabera.

Erabiltzaileek tasa hori ordainduko dute, mankomunitatutako udalerrri bakoitzari dagokion ordenantza fiskalak xedatutakoarekin bat etorritik.

II. TITULUA

BILKETA ZERBITZUA

6. artikulua. Bilketa zerbitzua egiteko eskumena

Tolosaldeko Mankomunitateak Ordenantza honetan ezarritako moduan etxe, merkataritza eta zerbitzuen sektorean sortutako etxeko hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko eskumena du (22/2011 Legearen 12.5.c.4 artikuluan baitan).

7. artikulua. Bilketaz arduratzen diren langileak legitimatzea

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

7.1. Soilik Tolosaldeko Mankomunitateak egin dezake hondakinen bilketa.

Beraz, debekatuta dago Ordenantza honetan adierazitako pertsona fisiko edo juridikoak ez diren beste batzuei hondakin ez-arriskutsuak eman, saldu edo lagatzea, 22/2011 Legearen 17. artikuluan xedatutako kasuetan salbu.

7.2. Tolosaldeko Mankomunitateak hondakinen kudeaketa-jarduerak zuzenean egiteko aukera du edo tokiko araubideari buruzko legedian aurreikusitako beste edozein kudeaketa modu erabil dezake.

I. KAPITULUA. BILKETA ARRUNTA

8. artikulua. Bilketa arruntaren xede diren hondakinak

Ordenantza honen arabera, hondakinen bilketa arruntaren xede honako hondakin hauek izango dira:

a) Etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortzen diren etxeko hondakinak. Halaber, etxeko hondakinak dira zerbitzu edo industrietan sortu eta aurrekoekin pareka daitezkeen hondakinak.

b) Merkataritza-hondakin ez-arriskutsuak, merkataritzaren beraren jarduerak, jatetxe eta tabernetako zerbitzuak, bulego eta azoketako jarduerak, bai eta zerbitzuen sektoreko gainerako jarduerak sortutako hondakinak.

Aipatutako hondakin horiek Ibarra Udalak horiek biltzeko zehaztu dituen egun, ordu, modu eta lekuan utziko dira derrigorrez.

9. artikulua. Bilketa arruntaren zerbitzuan sartzen ez diren hondakinak

Ondorengo hauek bilketa arruntetik kanpo daude, eta beraz, ez dira derrigorrez jasotzekoak:

- Indusketarako produktuak, lurrak eta obra publiko nahiz pribatuko edozein obra-hondakin.
- Etxeko eraikuntza eta berrikuntzarako obra txikietako hondakinak, hala nola, obra-hondakinak, zura, ate eta leihoetako markoak, zokaloak, pertsianak, tarimak, zoruak, moketak, bainuontziak, komunak, konketak, sukaldeko altzariak, erradiadoreak eta antzekoak eta, oro har, obra-lanetako edozein hondakin.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Edozein motatako pneumatikoak.
- Lorezaintzako eta berdeguneen mantentze-lanetako inausketa eta mozketetan sortutako hondakinak.
- Animalien hilotzak eta Europako Parlamentu eta Batzordearen 2009ko urriaren 21eko 1069/2009 EE araudiak jasotzen dituen animalien azpi-produktuak.
- Etxebizitzak usterakoan edo altzariak aldatzerakoan uzten diren tamaina handiko altzari edo tresnak, ezin direnak isolatuztat jo, etxebizitzetako altzarientzat edo etxebizitzaz aldatzerakoan erabiltzen diren bilgarriak barne.
- Bide-garbiketako hondakinak.
- Abandonatutako ibilgailuak.
- Ibarra Udalak (eta modu berean Tolosako Mankomunitateak) berariaz zehaztutako beste edozein hondakin, bere izaera edo berezitasunengatik, hondakinak jasotzen dituen Mankomunitateko zerbitzuak ezin dituelako jaso.

10. artikulua. Derrigorrezko zerbitzua

Ibarra Udalak, Tolosaldeko Mankomunitatearen bitartez, beharturik dago etxeke eta merkataritzako hondakin ez-arriskutsuak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzua eskaintzera. Halaber, derrigorrezkotzat hartzen diren hondakinak kentzeaz arduratuko da. Aipatutako hondakin horiek Ordenantza honen 8. artikuluan adierazten direnak dira.

11. artikulua. Hondakinen jabetza

11.1. Hondakinak sortzen edo edukitzen dituztenek, Ordenantza honetan zehazten diren baldintzetan jarriko dituzte Ibarra Udalaren esku. Mankomunitatea izango da entregatu eta biltzen diren une beretik horien guztien jabea (bilketaren eskumena duen heinean).

Hondakin sortzaile edo edukitzaileak salbuetsita geratuko dira hondakin horiek sor ditzaketen kalteen ondoriozko erantzukizunetatik, betiere entregatzeko orduan Ordenantza hau eta legezko gainerako arauak bete badira.

11.2. Debekatuta dago bide publikoan, dagozkien zerbitzuek jasoko zain, utzi diren hondakinak manipulatu, aukeratu eta horien jabe egitea.

12. artikulua. Programazioa



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarako Udalak aurreikusitako bilketa-zerbitzuen egun, ordutegi, modu eta lekuen berri emango du hainbat baliabideren bidez (informazio-oholak, web-orria, informazio-liburuxkak postontzietan, publizitatea, tokiko aldizkariak, eta abar.).

Ibarako Udalak, zerbitzuaren beharren arabera, interes publikoa dela eta, egokien iruditzen zaizkion aldaketak egin ditzake, zerbitzuan egingo diren aldaketak nahikoa denboraz jakinaraziz.

Ibarako Udalak, behar diren xedapenak emango ditu larrialdi, ustekabeko edo ezinbesteko egoeretan. Xehetasunak Ibarako Udaleko Alkatearen Bandoaren bidez arautuko dira.

13. artikulua. Larrialdi-kasuak

Larrialditzat jotzen diren kasuetan, hala nola, gatazka sozial, uholde, elurte edo ezinbesteko beste egoera batzuetan, zerbitzua ezin eman badaiteke eta aurrez, aldi berean edo modu koordinatuan udalek jakinarazi badute, bizilagunek ez dituzte hondakinak horretarako dauden guneetan utziko zerbitzua normalizatu arte edo Ibarako Udalak dagozkion argibideak eman arte.

HONDAKINAK UZTEKO BALIABIDEAK

I. ATALA.- HONDAKIN ORGANIKOA (KONTENEDORE MARROIA)

14. artikulua. Frakzio organikoa gaika biltzea

14.1 Hondakin organikoak dira

Frakzio organikoan, sukaldeko hondarrak barne hartzen dira, landare zein animalienak, gordinik zein sukaldatuak, hala nola: Fruta eta barazki hondarrak, arrautza azalak, fruitu lehorren azalak, ogia eta opilak, fruta hezurak, loreak eta landareak, baratze eta lorategiko hondarrak (belarra, inausketa xehatua), sukaldatutako janari hondarrak, haragi eta arrain hondarrak, hezurak, marisko azalak, sukaldeko papera, paperezko ezpainzapi eta ahozapi zikinak, infusio-poltsatxoak, kafe hondarrak eta iragazkiak, kortxozko tapoiak eta, oro har, Konpost Plantan konposta daitekeen edozein material.

14.2 Ez dira hondakin organikoak

Debekatuta dago frakzio organikoarekin batera goian aipatutako hondakinak ez diren beste motatako hondakinak ematea, bereziki lorezaintzako zurezko hondarrak (adarrak, enborrak), lurra, zigarro-puntak eta hautsontzi-hondarrak, animalien gorotzak, xurgagailuko edo erratzaren hondarrak, pixoihalak eta konpresak, olioak eta, oro har, konpostagarria ez den

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

edozein material solido. Ezin da plastikozko poltsarik erabili (ez konpostagarriak) frakzio organikoa emateko edo ontziratatu gabe emateko, Mankomunitateak horretarako baimena ematen ez badu behintzat.

14.3 Non eta nola utzi hondakin organikoak

Zerbitzuaren erabiltzaileek frakzio organikoa Ibarra Udalak eskura jarritako poltsa konpostagarrietan behar bezala itxita utziko dute, horretarako jarri dituen marroi koloreko edukiontzien barruan.

Poltsa konpostagarriak Euskal Herria 18 kaleko eraikinean horretarako ezarriko den makinan eskuratuko dira .

Zerbitzuaren erabiltzaileak frakzio organikoa egunero utzi ahal izango dute 18:00etatik 23:00etara, jaiegunak barne (hau txartelarekin kontrolatuko da).

Ibarra Udalak erabiltzaileei informazio zehatza emango die bereizi beharreko hondakinen inguruan.

II. ATALA.- ERREFUSA (KONTENEDORE GRISA)

15. artikulua. Hondar-frakzioaren edo errefusaren gaikako bilketa

15.1. Errefusa da

Hondar-frakzioan sartuko dira pixoihalak (haurtxo eta helduenak), konpresak, tanpoiak eta norberaren higieinarekin lotutako beste produktu batzuk, xurgagailuaren hondarrak, erratzarenak, bizarra mozteko eta depilatzeko xaflak, kosmetika oihaltxoak, preserbatiboak, arrandegi eta harategiko paper zikina, tirak, bendak eta antzekoak, boligrafoak, errotulagailuak eta antzekoak, puskatutako jokoak, zeramikazko platerak eta edalontziak, zigarro-puntak eta hautsontzi-hondarrak, animalien gorotzak.

15.2 Non eta nola utzi errefusa

Zerbitzuaren erabiltzaileek hondar-frakzioa Ibarra Udalak horretarako jarri dituen gris koloreko edukiontzien barruan utziko dituzte, hermetikoki itxitako plastikozko poltsatan sartuta.

Asteko egun batean (edozein egun) utzi ahal izango dute 18:00etatik 23:00etara, jaiegunak barne (hau txartelarekin kontrolatuko da).

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zerbitzuaren erabiltzaileak derrigortuta daude «hondar-frakzioa» edo «errefusa», hau da, birziklatu ezin diren hondakinez osatutako frakzioa, Ibarra Udalak ezarritako egun, ordu, modu eta lekuan entregatzea.

Ibarra Udalak pixoihalak jasotzeko berariazko bilketa bat egin dezake erabilera horretarako jarritako edukiontzien bidez, hondakin mota horiek sortzen dituztenentzat edo egokitzen jotzen duen beste sistemaren bat.

III. ATALA.- ONTZIAK (KONTENEDORE HORIA)

16. artikulua. Ontzi arinen gaikako bilketa

16.1 Ontzi arinak dira

Ontzi arinen frakzioak honako ontziak jasoko ditu: edari eta garbiketa produktuen ontziak, kontserba-poto metalikoak, edari-latak, jogurt eta antzekoen ontziak, olio eta ozpinenak, xanpu, gel eta antzekoenak, plastikozko poltsak, esne, zuku, ardo eta tomateen ontziak, spray potoak, kafe edo ur makinaren edalontziak, plastikozko erretiluak, poliespanezkoak eta aluminiozkoak, tapak eta tapoiak, opilen eta litxarrerien poltsak, blisterra, lata eta botilen pack finkatzaileak, hortzetako pastaren tuboak eta antzekoak eta, oro har, ECOEMBESen «puntu berdea» logoa duten metal, brik eta plastikozko ontzi guztiak.

16.2 Ontzi arinak ez dira

Debekatuta dago ontzi arin garbiak ez diren beste material batzuetako ontziak ontzi arinekin ematea, bereziki, beirazko ontziak, esekigailuak, jokoak, boligrafoak eta errotuladoreak, zartaginak, kazolak eta etxeko hatuak, etxetresna elektriko txikiak (plantzak, lehorgailuak, eta abar.), diskoak edo datu-zintak, audioa eta bideoa (CD, DVD, VHS, biniloa). Debekatuta dago ontzi arinak edukiontzi horitik kanpo uztea.

16.3 Non eta nola utzi ontzi arinak

Zerbitzuaren erabiltzaileak derrigortuta daude ontzi arinak Ibarra Udalak ezarritako egun, ordu, modu eta lekuan entregatzera.

Zerbitzuaren erabiltzaileek ontzi arinak Mankomunitateak horretarako jarri dituen hori koloreko edukiontzien barruan utziko dituzte.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IV. ATALA.- PAPERA ETA KARTOIA (KONTENEDORE URDINA)

17. artikulua. Etxeko paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa

17.1 Papera eta kartoia dira

Paper/kartoi frakzioak, egunkariak, aldizkariak, liburuak, gutun-azalak, propaganda, administrazio-papera, kartoizko kaxak eta bilgarriak, eta abar. izango ditu.

17.2 Papera eta kartoia ez dira

Debekatuta dago paperarekin eta kartoiarekin paper edo kartoi garbia ez den beste material batzuk uztea, bereziki plastikoak, zumitzak, brikak, paper zikina, eta abar. Debekatuta dago papera/kartoia edukiontzi urdinetik kanpo uztea.

17.3 Non eta nola utzi papera eta kartoia

Zerbitzuaren erabiltzaileak derrigortuta daude papera eta kartoia Ibarra Udalak ezarritako egun, ordu, modu eta lekuan entregatzera.

Zerbitzuaren erabiltzaileek papera eta kartoia Mankomunitateak horretarako jarri dituen edukiontzi urdinen barruan utziko dute. Kartoia behar bezala tolestuta entregatuko da.

Bestalde, ekoizle edo edukitzaileek papera eta kartoia beren kabuz Mankomunitatearen garbiguneetan utz dezakete.

V. ATALA.- BEIRA (IGLU BERDEA)

18. artikulua. Beirazko ontzien gaikako bilketa

18.1 Beira da

Beirazko ontzien frakzioan beirazko botilak, kontserba-potoak (kristalezkoak) eta, oro har, ECOVIDRIOren «puntu berdea» logoa daramaten beirazko ontzi guztiak jasotzen dira.

18.2 Beira ez da

Debekatuta dago beirazko ontziekin beirazko ontziak ez diren beste material batzuk uztea, bereziki, bonbillak eta fluoreszenteak, ispiluak eta leihoak, zeramikazko platerak eta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

edalontziak. Debehatuta dago beirazko ontziak beirarentzat berariaz jarritako edukiontzietatik kanpo uztea. Debehatuta dago beirazko ontziak ezarritako ordutegitik kanpo uztea.

18.3 Non eta nola utzi beira

Zerbitzuaren erabiltzaileak derrigortuta daude beirazko ontziak Ibarra Udalak eta ezarritako egun, ordu, modu eta lekuan entregatzera.

Zerbitzuaren erabiltzaileek beirazko ontziak Mankomunitateak horretarako jarri dituen berde koloreko iglu moduko edukiontzien barruan utziko dituzte.

Beirazko ontzien frakzioa dagokion edukiontzian 8:00ak eta 22:00ak bitartean utzi ahal izango da.

Bestalde, ekoizleek edo edukitzaileek beirazko ontziak beren kabuz Mankomunitatearen garbiguneetan utz ditzakete.

VI. ATALA.- ARROPA (KONTENEDORE BERDE ILUNA)

19.- artikulua. Arroparen gaikako bilketa

19.1 Arropa da

Arropa frakzioan orotariko jantziak (kaleko jantziak, kirol jantziak, bainurako arropak, barruko arropa, eta abar.), etxeko arropa (mantak, izarak, ohazalak, edredoak, errezelak, eskuoihalak, eta abar.), erabiltzeko egoera onean dauden oinetakoak, hainbat osagarri (gerrikoak, gorbatak, tiranteak, bufandak, eskuzapiak, eskularruak, poltsak, diru-zorroak, gerriko poltsak, eta abar.) jasoko dira.

19.2 Arropa ez da

Debehatuta dago arroparekin batera arropa erabilia, oinetakoak eta osagarriak ez diren beste material batzuk uztea, bereziki, alfonbrak eta moketak, garbiketa-tresnak (lanbasak, hautsa kentzeko trapuak, baietak, eta abar.), garbiketarako erabilitako trapu eta iruteak, ehundegietako oihal-zatiak. Debehatuta dago arropa horretarako jarritako edukiontzitik kanpo uztea. Debehatuta dago arropa bere horretan, poltsan sartu gabe, aipatutako edukiontzietan sartzea.

19.3 Non eta nola utzi arropa

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zerbitzuaren erabiltzaileek Mankomunitateak horretarako jarritako berde ilun koloreko edukiontzien barruan utziko dute arropa, beti poltsa itxitan sartuta.

Bestalde, ekoizleek edo edukitzaileek arropa beren kabuz Mankomunitatearen garbiguneetan utz dezakete.

Zerbitzuaren erabiltzaileak derrigortuta daude arropa Mankomunitateak ezarritako egun, ordu, modu eta lekuan entregatzera.

VII. ATALA.- PILAK (KONTENEDORE TXIKIAK KOLORE HORI ILUNA)

20. artikulua. Pilen gaikako bilketa

20.1 Pila da

Frakzio horren barruan otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuak araututako edozein motatako pila eta metatzaile eramangarriak jasotzen dira.

20.2 Pila ez da

Pilekin batera debekatuta dago kargagailuak eta urrutiko aginteak (TBkoak, musika ekipoetakoak) uztea. Debekatuta dago pilak horretarako jarritako edukiontzitik kanpo uztea.

20.3 Non eta nola utzi pilak

Zerbitzuaren erabiltzaileek Mankomunitateak horretarako jarritako edukiontzien barruan sartuko dituzte pilak.

Zerbitzuaren erabiltzaileak derrigortuta daude pilak Mankomunitateak ezarritako egun, ordu, modu eta lekuan entregatzera.

Bestalde, ekoizle edo edukitzaileek pilak beren kabuz Mankomunitatearen garbiguneetan utz ditzakete.

VIII. ATALA.- LANDARE OLIOA (KONTENEDORE BEIGE LARANJA)

21. artikulua. Landare-olioaren gaikako bilketa

21.1 Landare olio da

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Frakzio horretan sukaldean erabilitako landare-olioa soilik sartzen da.

21.2 Landare olioia ez da

Debekatuta dago automobilgintzako erabilitako olioarekin edo beste edozein likidorekin nahastea. Debekatuta dago olioia horretarako jarritako edukiontzitik kanpo uztea. Debekatuta dago olioia ontzirik gabe edukiontzia barrura botatzea.

21.3 Non eta nola utzi landare olioia

Zerbitzuaren erabiltzaileek Mankomunitateak horretarako jarritako beix/laranja koloreko edukiontzien barruan utziko dute landare-olioa. Erabilitako olioia beirazko edo plastikozko ontzi itxietan utziko da.

Zerbitzuaren erabiltzaileak derrigortuta daude olioia Mankomunitateak ezarritako egun, ordu, modu eta lekuan entregatzera.

Bestalde, ekoizleek edo edukitzaileek landare-olioa beren kabuz Mankomunitatearen garbiguneetan utz dezakete.

II. KAPITULUA. BILKETA BEREZIAK

I.-ATALA.-ETXEKO GAUZA HANDIAK

22. artikulua. Etxeko gauza handien bilketa

22.1 Etxeko gauza handia da

Gauza handien artean sartzen dira altzariak, etxetresna elektrikoak eta etxean erabilgaitzak diren bestelako gauzak.

22.2 Etxeko gauza handia ez da

Debekatuta dago tresna mekanikoen bidez (garabiak, poleak, eta abar.) mugitu behar diren hondakinak botatzea, ezta berehalako garraiorako prest ez dauden gauzak ere.

Debekatuta dago etxeko gauza handiak beste mota bateko hondakinekin batera botatzea, eta batez ere, eraikuntza eta etxeko konponketa-lan txikietatik eratorritakoak, pneumatikoak eta Ordenantza honen arabera derrigorrez hartu behar ez diren bestelako hondakinak

22.3 Non eta nola utzi etxeko gauza handiak

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bilketa-egutegia honakoa da Ibarraren kasuan:

UDALERRIA	BILKETA EGUNA
Ibarra	Ostegunero

— Bilketa jaiegunetan ere egingo da, Urteberri-egunean (urtarrilak 1) eta Eguberri-egunean (abenduak 25) izan ezik. Kasu horietan egun bat lehenago edo beranduago egingo da bilketa.

— Bilketa egunez egingo da, goizeko 06.00etatik 13.30era artean.

— Zerbitzua erabili nahi dutenek Mankomunitateak horretarako jarritako telefono zenbakira deitu beharko dute aurrez, edota Ibarra Udalera, eta gero, etxeko gauzak Mankomunitateak zehaztutako gunean utziko dituzte, txukun, lurzoruan, oinezkoen eta ibilgailuen pasabidea oztopatu gabe. Gauzak bilketa-egunaren bezperan utziko dira, 20.00ak eta 22.00ak bitartean.

Bestalde, ekoizleek gauza handiak beren kabuz Mankomunitatearen garbiguneraren batean utz ditzakete.

Debekatuta dago gauzak Mankomunitateko zerbitzuak ezarritako egun eta orduetaz kanpo uztea.

Mankomunitateak etxeko gauza handien bilketa berezia eskaintzeko zerbitzu bat ezarri du. Zerbitzuaren erabiltzaileek Mankomunitateak zehaztutako egun, ordu, modu eta lekuan entregatu beharko dituzte etxeko gauza handiak.

Jarraian azaltzen diren entrega-baldintzak interes publikoa dela eta alda daitezke, zerbitzuaren beharren arabera betiere.

II.-ATALA.-Merkataritza-kartoiaren bilketa

23. artikulua. Merkataritza-kartoiaren bilketa

23.1 Merkataritza-kartoa da

Kartoiaren barruan sartzen dira dendari, ostalaritza-zerbitzu, bulego eta merkatuetako, baita bestelako zerbitzu-sektoreen jardueratik eratorritako kartoizko kaxa eta bilgarriak.

23.2 Merkataritza-kartoa ez da

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Debekatuta dago kartoiarekin batera kartoi garbiak ez diren beste material batzuk uztea, bereziki plastikoak, zumitzak, eta abar.

23.3 Non eta nola utzi merkataritza-kartoa

— Zerbitzuaren erabiltzaileek kartoa komertzioaren atarian utzi beharko dute, behar bezala tolestuta eta multzokatuta, ahalik eta bolumen gutxien okupa dezan, oinezkoen eta ibilgailuen pasabidea oztopatu gabe.

— Kartoa berau biltzeko egunero utzi ahal izango da, 18:00etan, larunbatetan eta igandeetan eta Eguberri eta Urteberri egunean izan ezik.

Debekatuta dago merkataritza-kartoa Mankomunitateko zerbitzuak ezarritako egun eta ordutegietatik kanpo uztea. Debekatuta dago merkataritza-kartoa tolestu gabe uztea, oinezkoen edota ibilgailuen pasabidea oztopatzen baitu.

Bestalde, ekoizleek merkataritza-kartoa beren kabuz Mankomunitatearen garbiguneetan utz dezakete.

III.-ATALA.-HILDAKO ETXE-ABEREEN BILKETA

24. artikulua. Hildako etxe-abereen bilketa

24.1 Hildako etxe-aberea da

Hildako zakur eta bestelako etxe-abereak biltzeko zerbitzu bat jartzen da. Hildako etxe-abereak biltzeko eskaera (etxeetan, albaiari-kliniketan, haztegietan, bizitegietan edo aterpetxeetan daudenak) Mankomunitatearen bilketa-zerbitzuari egingo zaio. Zerbitzuaren erabiltzaileek Mankomunitateak zehaztutako egun, ordu, modu eta lekuan utziko dute aberea.

24.2 Hildako etxe-aberea ez da

Zerbitzu honetatik kanpo leudeke abeltzaintzako ustiategietan hildako animaliak, baita 2009ko urriaren 21eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1069/2009 Araudiak babesten dituen animalien gorpuak ere.

Debekatuta dago hildako etxe-abereak kontrolik gabe uztea.

IV.-ATALA.-MerkatuetaKO HONDAKINEN BILKETA

25. artikulua. Merkatuetako hondakinen bilketa

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

25.1. Mankomunitateak merkatuetako hondakinak bereizita biltzeko zerbitzu berezi bat ezarri du. Azoketan produktuak saldu nahi dituztenek, baita merkatuaren inguruko merkatariek ere, beren jardueratik eratorritako hondakinak bereizi behar dituzte, eta Mankomunitateak zehaztutako moduan eta lekuan entregatu.

Horretarako, Mankomunitateko zerbitzuek, udal garbiketa-zerbitzuekin koordinatuta, hondakin mota ezberdinak bereizita dituzten edukiontziak dituen gunea bat zehaztuko dute. Zerbitzuaren erabiltzaileek hondakinak bilketa-puntura eraman behar dituzte, sortu dituzten puntutik, hondakin bakoitzari dagokion edukiontzia dagoen punturaino.

Postua kendutakoan, gunea garbi egon beharko da, hondakinik gabe, udal garbiketa-zerbitzuak azken garbiketa egin baino lehen.

25.2. Mankomunitatearen eremuaren barnean egiten diren asteroko hainbat merkaturan sortutako hondakinen kantitatea eta horien motaren arabera, Mankomunitateko zerbitzuek ezar dezakete, merkatu bakoitzerako, jarraian azaltzen diren hondakin guztien edo batzuen bereizitako bilketa:

- Kartoia.
- Materia organikoa.
- Plastiko eta metalezko ontziak.
- Zura.
- Hondarrak.

25.3 Debekatuta dago hondakin zehatz bati dagokion edukiontzian beste mota bateko hondakinak uztea. Debekatuta dago hondakinak edukiontzietatik kanpo uztea. Debekatuta dago edukiontzietan merkatuko jardueretatik kanpo sortutako hondakinak uztea, horretara zuzenduta baitaude edukiontzi horiek.

V.-ATALA.-GARBIGUNE ZERBITZUA

26. artikulua. Garbigune zerbitzua

26.1 Garbiguneko hondakina da

Garbigune zerbitzua ezarri da, noizbehinkako etxebizitzako jardueratik sortutako hondakinak jasotzeko, baita Mankomunitateak bildu behar dituen bestelako hondakinak biltzeko ere, adibidez:

- Obra eta konponketa txikietako eraikuntza-hondakinak.
- Automobilgintzako pneumatikoak.
- Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, 208/2005 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

— Etxeko hondakin arriskutsuak (pilak eta metagailuak, pintura zaharkituak, bernizak, itsasgarriak, garbiketa-produktuak, automobilgintzako olioak, autoetako bateriak, disolbatzaile ez halogenoak, hustutako aerosolak, hustutako plastiko edo metalezko ontzi kutsatuak, erretxina oretsua, tonerrak eta tinta-kartutxoak, eta abar.).

— Txatarra.

— Egurrak.

— Papera eta kartoia.

— Plastikoak.

— Etxeko gauza handiak.

— Inausketa eta lorezaintzako hondakinak.

— Bestelakoak: Erabilitako arropa, sukaldeko olioak, beirazko ontziak, eta abar.

26.2. Garbigune zerbitzua doakoa izango da etxeko erabiltzaileentzat eta ez du dagokion Ordenantza Fiskalean aurreikusitako tasarik eragingo.

26.3. Garbigune zerbitzuaren erabilera Mankomunitateak zehaztutako baldintzen

III. TITULUA

ERABILERA ARAUAK

27. artikulua. Erabilera-arauak

27.1. Zerbitzuaren erabiltzaileak derrigortuta daude hondakinak bereizita uztera, hau da, horien mota eta izaeraren arabera sailkatuz, Ibarra Udalaren zehaztapenak jarraituz, jakitera emango duen programazioaren bidez.

27.2. Debekatuta dago hondakinak kontrolik gabe utzi, isuri edo ezabatzea, bai eta horien kudeaketa zailduko duen nahasketa oro ere.

27.3. Erabiltzaileak derrigortuta daude hondakinak Ibarra Udalak ezarritako egutegi, ordutegi, leku eta moduan uztera.

27.4. Erabiltzaileak derrigortuta daude kontenedore marroia eta grisa irekitzeko behar den txartela hartzea. Era berean txartel hau erabili beharko da poltsa konpostagarriak eskuratzeko. Txartela Udaletxean eskatu beharko da.

27.5 Erabiltzaileak derrigortuta daude poltsa konpostagarriak erabiltzera hondakin organikoa botatzeko. Poltsa hauek Euskal Herria 18 kalean jarriko den makinatik hartu beharko dira.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

27.6. Debekatuta dago zerbitzuan eragiten duten hiri-altzarien funtzioa edo estetika hondatzen duen edozein jarduera egitea, bai eta Mankomunitateak erabiltzaileei hondakinen frakzio desberdinak jatorrian bereiztea errazteko emandako ontzi edo beste elementuenak ere.

27.7 Debekatuta dago hondakinak bide publikoan manipulatzeari.

27.8 Ibarra Udalak, Mankomunitatearen laguntzarekin, modu koordinatuan ezarriko ditu bide publikoan jarri beharreko edukiontzien ezaugarriak, kolorea, edukiera, fabrikazio-materiala, kokalekua eta kopurua, bai eta oro har erabiltzaileek hondakinak emateko egokitzat jotzen den edozein elementurenak ere.

IV. TITULUA

ZIGOR ARAUBIDEA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

28. artikulua. Sarrera

Ordenantza honi dagozkion arau-hausteak Titulu honetan xedatutakoaren arabera zehatuko dira, dagozkien erantzukizun zibil eta penalen kalterik gabe.

29. artikulua. Prozedura

Testu honetan adierazitako arauak ez betetzeagatik dagozkien erantzukizunak hartu behar dituzten pertsonen zigorak ezarri ahal izango zaizkie, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zigorretarako buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean adierazitakoa eta uztailaren 28ko 22/2011 Legea urratzeari buruz abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretuan adierazitakoa bete eta dagokien prozedura erabili ondoren.

30. artikulua. Arau-hausteak bideratzeko eta zigortzeko ahalmena

Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 49.3 artikulua ezarritakoaren arabera, hondakin arriskutsuak kontrolik gabe utzi, isuri edo ezabatzen bada, edo Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak bete gabe entregatzen badira, zigorretarako ahalmena arau-haustea egin den udalerriko alkateari dagokio. Horretarako, Mankomunitateko zerbitzuek eta mankomunitateko udal zerbitzuek elkarrekin lan egingo dute, ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteak ikuskatzeko eta salatzeko. Mankomunitateak hala eskatuta, Udalak ez badu zigor prozedura hasten, eskaera egin den egunetik kontatzen hasita 10 eguneko epean, Mankomunitateko Lehendakariak arau-haustea bideratu eta zigortu ahal izango du.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

31. artikulua. Hondakinen titular erantzulea

31.1. Hondakinek titular erantzule bat izango dute beti, kasu bakoitzean hondakinen erabiltzailea, sortzailea, edukitzailea edo kudeatzailea izan daitekeena.

31.2. Erantzukizun administratibotik kanpo geratuko dira, bakar-bakarrik, hondakinak Mankomunitateari entregatu dizkiotenak Ordenantzak eta gainerako araudi aplikagarria betez, edota hondakinak horien kudeaketa-lana egiteko beharrezko baimena duten kudeatzaileei eman dizkiotenak.

32. artikulua. Arau-hausteen arduradunak

32.1. Kapitulu honetan ezarritako arau-hauste administratiboak egiteagatik zigortuko dira pertsona fisiko edo juridikoak, Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera eta Ordenantza honetan adierazitako arau-hausleei dagozkien erantzukizun zibil, penal eta ingumenari dagozkien kalterik gabe.

32.2. Ordenantza honetan ezarritakoa pertsona bati baino gehiagori dagokienean, modu solidarioan erantzungo diote diru-zigorrari, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 130.3 artikulua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak xedatutakoaren arabera.

32.3. Erantzukizuna solidarioa izango da ondorengo kasuetan:

- a) Hondakinen jabeak, edukitzaileak edo kudeatzaileak hondakin horiek lege baimendutakoa ez den pertsona fisiko edo juridiko bati ematen dizkionean.
- b) Erantzuleak bat baino gehiago direnean eta horietako bakoitzak dagokion arau-haustean zenbaterainoko partaidetza izan duen zehazterik ez dagoenean.

32.4. Hainbat pertsonen jardueren metaketaren ondorioz ingurumena kaltetu bada, administrazio eskudunak erantzukizuna eta horri dagokion ondorio ekonomikoak indibidualki zigor ditzake.

II. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

33. artikulua. Lege-tipifikazioaren garapena

Kapitulu hau uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 49.3 artikulua -46.3.c) artikuluari loturik-alor honetan Toki Erakundeei esleitutako zigortzeko ahalmenaren eta arau-hausteen garapen gisa erregulatu da.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Artikulu horien arabera, Toki Erakundeko titularrak, arau-hauste larria egiteagatik, hots, «edozein hondakin-mota ez-arriskutsu kontrolik gabe utzi, bota edo deuseztatzeagatik, ingurumenarentzat kalte edo hondamen larririk eragin gabe edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri gabe, zigor bat jarri ahal izango du, 901 eta 45.000 € bitartekoa».

34. artikulua. Arau-hauste motak

34.1. Arau-hauste oso larriak izango dira:

- a) Edozein hondakin-mota ez-arriskutsu kontrolik gabe utzi, bota edo deuseztatzea, ingurumenarentzat kalte edo hondamen larririk eragin gabe edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri gabe.
- b) Mankomunitateko bilketa-bitartekoei eta hondakinen tratamenduari nahita kalte egitea, horiek erabat suntsitzea edo zerbitzutik ezabatzea xedetzat duten bitarteko edo moduen bidez.
- c) Arau-hauste larriak errepikatzea. Errepikatzea, urte batean gutxienez bi arau-hauste larri egiten direnean gertatuko da.

34.2. Arau-hauste larriak izango dira:

- a) Bilketa-guneetan Ordenantza honetan bildu behar ez diren hondakintzat jotzen diren edozein hondakin mota uztea.
- b) Bilketa-zerbitzuaren erabiltzaileak, arrazoi justifikaturik gabe eta nahitaezkoa denean, uko egitea berak sortzen dituen hondakinak aipatutako zerbitzuaren esku jartzeari.
- c) Hondakinak jaso eta tratatzeko bitartekoei funtzionalki edo estetikoki kalte egitea, aurreko paragrafoko b) atalean oso larritzat jotzen ez bada.
- d) Edukiontzia mugitzea, lekuz aldatzea edo manipulatzeko, betiere egoera arriskutsuak edo hondakin-bilketa zaildu dezaketen egoerak sor badaitezke, administrazioaren alde aurreko baimenik gabe.
- e) Hondakinen zamaketa-lanak eta garraioa oztopatzea edo galaraztea.
- f) Hondakinak zuzenean estolderiatik edo saneamendu-saretik botatzea.
- g) Dagokion zerbitzuak bildu aurretik bide publikoan dauden hondakinak manipulatu, hautatu eta lapurtzea.
- h) Arau-hauste arinak errepikatzea. Errepikatzea, urte batean gutxienez bi arau-hauste arin egiten direnean gertatuko da.

34.3. Arau-hauste arinak izango dira:

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- a) Hondakinak edukiontzietatik kanpo edo Mankomunitateak hondakinak uzteko adierazitako lekuetatik kanpo uztea, edo zerbitzuaren egutegitik edo ezarritako ordutegitik kanpo uztea.
- b) Hondakinak bide publikoan kokatutako paperontzietan uztea edo bide publikoan aldi baterako jarritako obra-edukiontziak hondakinak uzteko erabiltzea.
- c) Substantzia likidoak edo likidotu daitezkeenak edo isurketak eragin ditzaketenak dauzkaten hondakinak uztea.
- d) Gaika biltzeko edukiontzi bidezko zerbitzua ezarrita izanik, hondakinak nahastuta uztea, hondakin-fluxu jakin baten gaikako bilketaren zerbitzuaren motaren arabera bereizi gabe, ondorengo tratamendu espezifikoa zailtzen baitu.
- e) Gaika biltzeko edukiontzi bidezko zerbitzua ezarrita izanik, hondar-frakzioan birzikla daitezkeen hondakinak uztea edo baliotu daitezkeen frakzio bakoitzean eskatu ez diren bestelako hondakinak uztea.
- f) Ordenantza honetan bildutako beste arau-hausteak, zuzenean arau-hauste larri edo oso larritzat tipifikatu ez direnak.
- g) Edukiontzi marroia eta grisa irekitzeko zein poltsa konpostagarriak eskuratzeko txartelak ez hartzea
- h) Hondakinak dagokion poltsa konpostagarrietan ez botatzea

III. KAPITULUA. ZIGORRAK

35. artikulua. Zigor motak

Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteak egiten badira, honako zigorrak ezarri ahal izango dira:

- a) Arau-hauste oso larriak:
 - Isuna: 450,50 € eta 45.000,00 € bitartekoa.
- b) Arau-hauste larriak:
 - Isuna: 90,11 € eta 450,49 € bitartekoa.
- c) Arau-hauste arinak:
 - Ohartarazpena.
 - 90,10 € bitarteko isuna.

36. artikulua. Zigor-ezarpena

Zigorrak honako hauen arabera ezarriko dira: Arau-haustearen eragina, pertsonen osasun eta segurtasunari dagokionez garrantzia, erantzulearen egoera, bere intenzionalitate-maila, parte-hartzea eta lortutako onurak, errepikatzea, urte berean mota berdineko arau-hauste bat baino gehiago egiteagatik, behin-betiko ebazpen batek ezarri badu, eta eragindako kalteen itzulezintasuna.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

37. artikulua. Jarduera osagarria

Arau-hausleak behartuta daude utzitako hondakinak kentzera eta zikindu duten inguruak garbitzera, dagozkien zigorrak kontuan izan gabe.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. ORDENANTZA OROKORAREN GARAPENA

Ibarrako Udalak bere lurralde-eremuan hoberen egokitzen den tresna juridikoaren bidez garatu ahal izango du Ordenantza hau. Helburua da Ordenantza hobeto aplikatzea, eta ondorioz, aurreko araudia, egun dauden erabilerak eta ohiturak bateratzea, egokitzea eta bateragarri egitea, kontuan hartuta betiere auzoak, herrigune historikoak, populazio sakabanatua, landa-guneak, ibilgailuen irisgarritasuna, aukeratze-sistema, sorburuko bereizketa, bilketa, hasierako tratamendua, elkartzea, trinkotzea, garraioa, lan-ordutegiak eta baldintza teknikoak, baldintza higieniko sanitarioak, apaintasun publikoko baldintzak, eraginkortasun-baldintzak eta baita ordenantza berri honen eta aplikagarria den legediaren edukia, filosofia eta xedea hobeto betetzeko eta kudeatzeko udalek finkatzen dituzten antzeko baldintzak ere.

Ordenantza hau ordenantza, araudi, bando edo instrukzio bidez garatu ahal izango da baldintzen arabera eta Udal bakoitzak hartutako erabakiaren arabera.

Nolanahi ere, garapenak zehatz-mehatz bete beharko ditu Ordenantza Orokor honen printzipioak, zuzenbidearen iturriak eta mankomunitatearen interes orokorrak.

ARAUDI GEHIGARRIA

Ordenantza honetan aurreikusi ez diren gai guztietan Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak xedatutakoari men egingo zaio, baita aplikagarri izan daitezkeen gainerako araudiei ere.

AZKEN XEDAPENA, INDARRALDIA

Ordenantza hau, Ibarrako Batzarrak behar bezala onartutakoa, legean agindu bezala bideratuko da eta bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

2017/03/30



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaituztat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamazazpi direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.

2017/03/30

69